zuten jai-giroa Tirri Tarra eta Porrontxo txarangekin, eta asto-lasterketa, koadrilen afaria, kaleko antzerkia (Trapuzaharra), haurren danborrada, koadrilen arteko futbola eta abar izan ziren.

1986an 24 koadrila hauek zeuden: Polloe-Xurrut, Ekaitz, Aldapakoak, Beti Borra, Txustarra, Desberdinak, Gau-txoriak, Baztango, Beti egarriak, Ttanttatarak, Ortzadar, Gau-bele, Izengabe, Eskaxak, Los Esponjas, Maxalon, Jarana S. L. O., Putreak, Zakil Asto, Kupela, Azkenekoak, Zurrupatu, Txirimiri eta Antxeta. Mauka, goitibeherak, umorezko rally-a, presoan aldeko manifestazioa, haur jolasak Gladys-Enean arraultz borrokak, zubiak, zinta-lasterketak bizikletaz eta abar.

1987an kronoeskalada, pilota-partiduak, bertsolariak eta abar. 1988an, txarangen 14 ekitaldi, ur-mauka, batelak Urumean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Aitor ikastolako haur abesbatza eta abar. 1989an jaiek bost egun iraun zuten, asteazkenetik hasita. 1990ean idatzi bat sartu zuten buzoietan auzotarrek terrazak ikurrinarekin, globoekin eta abar apaintzeko, eta haur koadrilen jaitsiera, Erramun Martikorenaren kantaldia, jotak eta abar izan ziren. 1991n auzoko erakundeen txoznak zabaldu zituzten, eta Mikel Markezen kantaldia, Hika taldearen antzezlan eta abar eskaini ziren. 1994an Maider eta Alaitz, eskalada-murrua, Joxe Mari "Ijituren" omenaldia, herri kirola eta abar. 1996an beste egun bat gehitu zioten jaiari, porrontxoan aurreko larunbata alegia, eta dagoeneko sei dira...

Baina sei egun horiez gain, aurreko egunetan ere antzematen da jai-giroa, han eta hemen koadrilak elkartuta ikusten baitira, edota gazteak eskaileretan igota kaleak apaintzen, beste batzuk oholtza edo txoznak ipintzen, edo jaien programak banatzen, pilota edo mus kanporaketak, batzordeko kideak azken orduko prestaketa lanetan... Izan ere, jaien aurreko egunak bereziak izan ohi dira baita ere.

Ekitaldi guztietatik nagusienak aipatuko ditugu, bi batik bat, **koadrilen jaitsiera** kalejiran, aparteko parranda giroa sortuz eta jantzi desberdinekin kaleei kolore emanez, eta menu gozoak eta umore ona nagusi izaten diren **koadrilen afaria**, bertan blusa guztiak elkartuz. Aipatzekoak dira baita ere koadrila desberdinekoekin berbenetan izaten diren arin-arinak



edo kalejirak, ordura arte inoiz hitz egin ez zenuen auzotarrarekin txoznan hartzen duzun zurito hori, Egiatik kanpo dagoen lagun hori gogorarazten dizun ekitaldi hori, edo amaierako kalejira, saltoka eta alaitasunez azkeneko indar apurra agortuz.

Txikienek gozamen handia hartzen dute auzokoei



Pero aparte de esos seis días ya en las jornadas anteriores se percibe la llegada de las fiestas, pues se ven reuniones de cuadrillas por todos los lugares, o a unas jóvenes subidas a una escalera adornando las calles, a otros montando el tablado o las txoznas, o repartiendo los programas de fiestas, las eliminatorias de pelota o mus, las y los de la Comisión metiendo horas para arreglar los últimos preparativos... Los anteriores también son unos días muy especiales.

De todos los actos festivos habría que destacar las dos actuaciones centrales que son la **Bajada de cuadrillas** en kalejira en un ambiente extraordinario de juerga y colorido de las distintas vestimentas y la **cena de cuadrillas** con sus excelentes menús y gran humor, y por ser éstos los momentos en que se agrupan todas las blusas en un mismo acto. También es de señalar los arin-arin o kalejiras que se forman con componentes de distintas cuadrillas en las verbenas, el zurito que tomas en una txozna con ese vecino que nunca hasta ahora te habías parado a hablar, ese acto que te recuerda a una amiga o un hijo que se encuentra fuera de Egia, o la kalejira final en la que con los saltos y alegría se gastan las últimas energías.

Los más pequeños disfrutan mucho en su Bajada pidiendo "ura" al vecindario y mojándose como si hubieran salido de la playa, se ríen con los payasos o lo pasan estupendo con los diversos juegos del parque.

Pero los programas de todos estos años no hubiera sido posible sin la colaboración de las personas que han metido incontables horas en la comisión de fiestas y citaremos las más asiduas aunque siempre se nos puede olvidar alguien: Jaione, Julio, Jose Mari, Karlos, Joxepo, Mari Karmen, Josean, Tato, Koldo, Fernando, Alfontso, Matti, José Luis, Miren, Txino, Iñigo, Oihana, Joxean, Abraham, Vinillo, etc. A añadir las personas que han pasado alguna temporada por la comisión, los numerosos laguntzailles que se dedican a hacer alguna labor determinada y las cuadrillas que


“ura” eskatuz eta blai-blai eginda bukatuz, pailazoekin barre egiten dute eta parkeetan antolatzen diren hainbat jolasetan primeran pasatzen dute.

Baina urte hauetako programak aurrera eramatea ezinezkoa izango zen jaien batzordean hainbat eta hainbat ordu eman dituzten pertsonen lankidetzarik gabe, eta ohikoenak aipatuko ditugu betiere norbait ahaztuko zaigun arren: Jaione, Julio, Jose Mari, Karlos, Joxepo, Mari Karmen, Josean, Tato, Koldo, Fernando, Alfontso, Matti, José Luis, Miren, Txino, Iñigo, Oihana, Joxean, Abraham, Vinillo eta abar. Eta pertsona horiekin batera batzordean denboraldi batez egon direnak ere izan dira, zeregin zehatzen bat betetzen duten hainbat laguntzaile eta dagokien lanean diharduten koadrilak. Guztien artean lagundu baitute proiektu hau aurrera eramaten.



Porrontxoeren arrakasta gero eta handiagoa izateaz gain Egiaren sinbolo bihurtu da inolako zalantzarik gabe, baita beste auzo eta herri batzuetan jarraitu beharreko eredu eta egiatarron arteko elkartasun eta harremanaren eragile ere, Porrontxo Jaiak guztiok erabaki eta jorratzen baititugu. Horregatik dira, izan ere, **gure jaiak**.

realizan su trabajo correspondiente. Todas ellas han colaborado en sacar adelante este proyecto.



El éxito creciente de los Porrontxos se ha convertido, sin duda, en un símbolo de Egiá, un modelo a imitar desde otros barrios y pueblos y en un factor de cohesión y comunicación entre las y los egiatarras, por que las Porrontxo Jaiak somos todas y todos nosotros los que las decidimos, las trabajamos y las disfrutamos y por eso son **nuestras fiestas**.

PORRONTXO TXARANGA

Arrano elkarteak sortu berria zenean, Kultur Batzordeko kideek txaranga bat eratzea pentsatu zuten.

1982ko ekainean, 26 pertsona inguru bildu ziren eta solfeoko lehenengo eskolak jasotzen hasi ziren, askok ez baitzuten aurretik solfeorik ikasi. Uztailean instrumentuak erosi zituzten eta horretarako mailegu bat eskatu zuten. Bazkideek ere beren ekarpena egin zuten, txarangarako dirulaguntza lortzeko afari herrikoiak antolatuz.



Entseiuak ia gehienek ezagutzen ez zituzten instrumentuak joz eta Joseinazio eta Yonen zuzendaritzapean eta laguntza handiarekin hasi zituzten, eta Isak pazientzia handiz irakasten zien solfeoko eskolak jasoz.

Beren asmoa Egian edo beste auzo edo herrietan antolatzen zen edozein festa herrikoietan parte hartzea eta giroa sortzea zen eta estreinaldia Egian izan zuten 1983ko San Juan bezperan.

Egiatik kanpo izan zuten lehenengo estreinaldia Ordiziako festetan izan zen, koadrilen egunean, lauzpabost abesti besterik ez zekitenean. Egun osoan zehar pieza berak errepikatuz aritu ziren. Giro zoragarria izan



zen egun hartakoa eta azkenean koadrilak hogeita hamairugarren pieza jotzeko eskatzen aritu zitzaizen

PORRONTXO TXARANGA

En los comienzos de la sociedad Arrano, los integrantes de la Comisión de Cultura tuvieron la iniciativa de crear una txaranga.

En Junio de 1982 se juntaron unas 26 personas y empezaron dando las primeras lecciones de solfeo, desconocido por la mayoría. En Julio compraron los instrumentos, para lo cual solicitaron un préstamo y además contaron con la colaboración de muchos de los socios y socias que acudían a las cenas populares que organizaban para subvencionar la txaranga.

Iniciaron los ensayos con los instrumentos, la mayor parte los utilizaba por primera vez, bajo la dirección y gran ayuda de Joseinazio y Yon, alternando con el aprendizaje del solfeo que con mucha paciencia les instruía Isa.

Sus intenciones eran colaborar a ambientar cualquier tipo de fiesta popular que se organizara en el barrio u otros barrios o pueblos y así se estrenaron la víspera de San Juan de 1983 por Egia.

La primera salida fuera de Egia fue a las fiestas de Ordizia en el día de las cuadrillas cuando solamente sabían cuatro o cinco canciones. Pasaron todo el día repitiendo las mismas piezas en un ambiente fenomenal y al final los de la cuadrilla, en plan de cachondeo les pedían que tocasen la pieza treinta y tres.



Entre las actuaciones que han realizado habría que citar las siguientes: la Bajada de las cuadrillas en las Porrontxo que la sentían de una manera especial como fiesta suya que era; las fiestas de los barrios de Donostia y pueblos; los Carnavales de Donostia por la Parte Vieja debidamente disfrazados; recibimientos de presos, como el de Josemari Isasti en la estación; la movida Anti OTAN en la playa; la Bajada del Urumea organizada por Eguzki; han participado en algún kilómetro corriendo y tocando a la vez en la

txantxetan.

Izan dituzten emanaldien artean hona hemen batzuk: Porrontxo jaietako koadrilen jaitsiera, jai haiek beraienak zirenez bereziki bizi zituztelarik; Donostiako eta herrietako jaiak; Donostiako Inauteriak, mozo rrotuta Alde Zaharra girotuz; presoei harrera egin izan zaienetan, esate baterako trenbidean Josemari Isastiri egindakoa; OTANen aurka hondartzan izan zen mugidan; Urumea ibaiaren jaitsiera, Eguzkik antolatua; Korrika, aldi berean lasterka eginez eta instrumentuak joz parte hartu zutelarik; Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urratsak; Altsasun izan zen Egin eguna; Loiolako Hontza elkarteko inaugurazioa eta abar.

Hondartzan, kamioi baten gainean kalez kale, euritan... jo dute, betiere jendea parte hartzera bultzatuz, hau da, jendearen arreta berenganatu nahian baino gehiago musikaren bidez haiek salto edo dantza egitera animatuz.

Ordainsariak dirulaguntzak zituzten jaietatik jasotzen zituzten eta instrumentuak ordaintzeko eta taldea mantentzeko antolatzen zituzten afarietarako izaten ziren, betiere txarangak aurrera jarraitzeko asmoak bultzatuta.

Hala eta guztiz ere, txaranga guztia ez zen festa giroa izan. 1985eko abuztuaren 16an erabat hunkituta gertatu ziren, Aloña Jauregi ustekabeko ezbehar batez hil zenean. Aloñak 15 urte zituen eta ezaguna eta maitatua zen auzoan jarduera desberdinetan parte hartzen zuelako eta txaranga kidea zelako. Bere omenez inguruko txaranga ugari etorri ziren eta banan-banan Karmengo Andre Mariaren kaletik jaitsi ziren Plaza Berriraino musika joz, eta bertan ia lekurik ez zela denak bildu zirenean pare bat abesti jo zuten elkarrekin. Oso mementu hunkigarria izan zen hura.

Hamaika urte hauetan zehar, jende asko pasa izan da txarangatik, hirurogeitik gora alegia, eta haietatik berrogeita hamar bat irten izan dira jotzera.



Haien artean beren partaidetza handiagatik aipatzekoak dira: Julio, Jaione, Endika, Fede, Josean, Maite, Patas, Marijo, Bana, Matti, Tere, Antxon, Karlos, Kiti, Irene, Josean, Pili, Aloña, Ana, Yon,

Korrika; el Herri Urrats de las ikastolas de Iparralde; el Egin eguna en Altsasu; la inauguración de la sociedad Hontza, de Loiola, etc.



Han tocado en la playa; encima de un camión mientras les llevaban por distintas calles; lloviendo;... pero siempre buscando la participación, sin interesarles ser el eje de la atracción para ser vistos pasivamente, sino que la gente alrededor saltara o bailara con su música.

Sus honorarios los cobraban de las fiestas que estaban subvencionadas y los destinaban a pagar los instrumentos o en cenas que realizaban para crear un ambiente de mantenimiento del grupo, siempre conveniente para la continuidad de la txaranga.

Sin embargo no fue todo una fiesta en la txaranga, ya que el 16 de Agosto de 1985 pasó un acontecimiento que les conmovió totalmente cuando Aloña Jauregi, una joven que a sus quince años era conocida y apreciada por su participación en distintas actividades del barrio y componente de la



txaranga, falleció en un accidente fortuito. Se hizo una celebración en la que colaboraron numerosas txarangas del entorno, que comenzaron bajando de una en una por la calle Virgen del Carmen tocando una pieza musical hasta Plaza Berri y allí todas reunidas, sin sitio apenas en la plaza, tocaron a la vez un par de canciones, en unos momentos muy emocionantes.

A través de estos once años se fue renovando la gente hasta pasar más de sesenta personas, de las que llegaron a salir a tocar unas cincuenta. Entre las más asiduas habría que mencionar a: Julio, Jaione, Endika, Fede, Josean, Maite, Patas, Marijo, Bana, Matti, Tere, Antxon, Karlos, Kiti, Irene, Josean, Pili, Aloña, Ana, Yon, Pello, Marian, Julen, Kontxi, Txepe, Agus, Ainhoa, Pron, Teresa,

Pello, Marian, Julen, Kontxi, Txepe, Agus, Ainhoa, Pron, Teresa, Juanjo, Arantza, Benno, Fito eta abar. Eta ohizkanpokoa delako edo aipatzekoa da baita ere Benno aleman gaztearen partaidetza, Donostian ikasten ari zen bitartean giro honetan erabat integratuz.

1993. urtearen inguruan goibehera izan zuen desedesezin zen arte, ikastolan eta beste zentro batzuetan musika ikasten ari ziren gazteekin jarraitzea lortu gabe. Eta hala bukatu zen hamaika urte iraun zuen esperientzia eder hura, une zoragarriak igarotzeko aukera eman ziena eta auzoan antolatzen ziren jaietan eta bestelako ekintza herrikoietan festa giroa zabaltzeko balio izan zuena.

Juanjo, Arantza, Benno, Fito, etc. Quizá habría que citar como curiosa la participación del joven alemán Benno que estaba estudiando en Donostia y se integró perfectamente en este ambiente.

Hacia 1993 fue perdiendo auge y se deshizo sin haber podido tener una continuidad con jóvenes que estaban aprendiendo música en la ikastola y otros centros. Con ello se acabó esta bonita experiencia de unos once años que les hizo pasar unos momentos formidables de diversión e inmejorable armonía y sirvió para mantener el ambiente en el barrio en las fiestas y actos populares que se organizaban.




ANTXETA AISIALDI ELKARTEA-EGIAKO HAUR TXOKOA

1983an **zortzi gaztek** talde bat eratu zuten Antxeta Atsedendaldi Elkartearen izenez haurren aisialdirako elkartearen sortzearen. Publikoa izan behar zuela pentsatu zuten eta instituzioen dirulaguntzak jaso ahal izateko legalizatu zen.



Hasieran Frantziskotarren parrokiako **lokal** bat erabili zuten urte batzuz eta ondoren utzi egin zuten baldintzatuko zuten inolako ideologiaren menpe ez egoteko. Aitor Ikastolan areto bat utzi zieten Ametzagaña kalean eta 1989, gurasoen laguntzarekin egindako presioaren ondoren, Udalak gaur egun Atotxako Dorrean duten lokala uztea lortu zuten. Taldeak hasiera batean asteburuetan lan egin ohi zuten, baina aurrera egin ahala eguneroko lanari ekin zioten, Gipuzkoako **lehenengo Haur Txokoa** bihurtzeraino.

Antolatu zuten **lehenengo jarduera** haurren eta gurasoen artean egin zuten antzerki bat izan zen eta gero Mendigorriako **lehenengo kanpamentua**, maileguan utzitako materialarekin antolatua.



Monitore izateko baldintzetako bat **euskalduna** izatea zen eta ez zekienak konpromiso pertsonala eta kolektiboa hartu zuten ikasteko.

Hasieratik **50 hezitzaile** inguru eta bi milatik gora haur pasa dira bertatik.

Antxetara doazen neska-mutil gehienak ikastolakoak dira, baina badira baita ere beste ikastetxe batzuetatik etorritakoak, eta auzoko bazter guztietara iristea da asmoa.

Antxetaren **helburua** hauxe da, auzoko bost eta hamabi urte bitarteko neska-mutilei aisialdirako

ANTXETA AISIALDI ELKARTEA-EGIAKO HAUR TXOKOA

En 1983 un grupo de **ocho jóvenes** se reunió con la intención de crear una asociación para el ocio infantil con el nombre de Antxeta Atsedendaldi Elkartearen. Pensaron que debería ser público y se legalizó para facilitar las subvenciones de las instituciones.

Al principio utilizaron un **local** de la parroquia de Franciscanos durante unos años y lo dejaron para no depender de ninguna ideología que les condicionara. En Ikastola Aitor les dejaron una sala en Ametzagaña y en 1989, tras una presión ejercida con la colaboración de padres y madres, consiguieron que el Ayuntamiento les cediera el local que tienen actualmente en la Torre de Atotxa. Se pasó de ser un grupo que trabajaba normalmente los fines de semana a hacerlo diariamente, lo que supuso ser el **primer Haur Txokoa** de Gipuzkoa.



La primera actividad

fue un teatro que se hizo entre niñas, niños, padres y madres y

después el **primer campamento** en Mendigorria con material prestado.

Para ser monitor había que ser **euskaldun** y cogieron un compromiso personal y colectivo de aprender el euskara quien no lo supiera.

Desde el comienzo han pasado alrededor de **50 educadores** y más de dos mil niños y niñas.

La mayoría de los chavales y chavalas que van a Antxeta son de la ikastola, aunque también van de otros colegios y su intención es llegar a todos los rincones del barrio.

El **objetivo** de Antxeta es ofrecer una alternativa para el ocio a las niñas y niños entre cinco y doce años del barrio. Tomando como base un proyecto pedagógico con los valores de: igualdad, identidad con su entorno físico, social y cultural (euskera), la comunicación y relaciones con los demás...

La **Ludoteca** ofrece una oportunidad sin igual para divertirse utilizando juguetes y juegos educativos adecuados a cada edad. Se potencian juegos libres y cooperativos.

El objetivo de la **Biblioteca** es el de acercar el mundo del libro a la infancia. Ese primer contacto


alternatiba bat eskaintzea. Eta beren proiektu pedagogikoa besteren artean honako baloreetan oinarrituta dago: berdintasuna, ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekiko (euskara) identitatea, gainerakoekiko komunikazioa eta harremana...

Ludotekak aukera paregabea eskaintzen du adin bakoitzera egokituta dauden jostailu eta joko hezigarriak erabiliz ongi pasatzeko, eta joko libreak eta kooperatiboak bultzatzen dituzte.

Liburutegiaren helburua liburu mundua haurren gana hurbiltzea da. Irakurketarako lehenengo hurbilketa hori egokia eta atsegina baldin bada eta derrigorrezkoa ez bada positiboa izan daiteke etorkizunean irakurketarako zaletasuna izateko. Abentura eta beldurrezko liburuak, ipuinak, komikiak, liburu didaktikoak eta bestelakoak eskaintzen dituzte eta noizean behin kontu-kontalariren batek eskaintako saioak ere izaten dira. Kultur Etxea zabaldu zen arte Egian zegoen haur liburutegi bakarra zen.

Beste eremu interesgarria **tailerrak** dira. Sukaldaritza, antzerki, zango, mitologia, malabarismo, birziklatze eta abarri buruzko tailerrak. Sormena, irudimena, eskulanak, eta adierazpen artistikorako teknikak lantzen dira eta adinaren arabera bereizten diren bi taldez osatu ohi dira.

Gainera, dantza entseiuak egiten dira bertan, baita gai desberdinak eztabaidatu, erlazaziorako ariketak egin eta beste zenbait jardura ere.



Hamabost eguneko **kanpamentuak**, haurrentzako oporraldiak izateaz gain esperientzia desberdinak bat egiteko abagunea dira. Hurrekin igarotzen dituzten 24 orduak aparteko aukera eskaintzen diete hezkuntzarekin zerikusia duten jarduerak burutzeko. Asmoa hauxe da, jokabide positiboak barneratzea, jateko, oheratzeko... ohituretan. Familiaren inguruan hartu dituzten ohiturak lagun artean bizi izaten dituzte kanpamentuan, etxeko babesik gabe autonomia gehiago izaten baitute. Haur bakoitzak bere platera jarri, jaso eta garbitzen du. Bere arropa

con el libro si es adecuado, agradable y no obligado

puede ser positivo para ser un futuro buen lector.

Hay libros de aventuras, de

historias verdaderas, de miedo, cuentos, comics, didácticos... De vez en cuando se hace la lectura de libros contada por alguna animadora. Hasta la apertura de la Casa de Cultura era la única biblioteca infantil que había en Egia.



Otro campo interesante es el de los **Talleres**. Taller de cocina, de teatro, de zancos, mitología, malabarismo, de reciclaje. Se trabaja la creación, la imaginación, las manualidades, técnicas para la expresión artística y suele estar compuesta de dos grupos de edades diferenciadas.

Además se realizan ensayos de bailes, se discuten distintos temas, se hace relajación, etc.

Los **Campamentos** de quince días aparte de ser unas vacaciones para el niño y la niña es la suma de distintas experiencias. Las 24 horas que se pasan con las y los niños es una opción excelente para poder hacer un trabajo educativo. Se trata de interiorizar comportamientos positivos en las costumbres en las comidas, al acostarse... Las costumbres que han adquirido alrededor de la familia ahora las viven entre sus amigos y amigas, desapareciendo la protección que tenían en casa y llegándoles un tiempo de mayor autonomía. Cada niño y niña pone, recoge y friega su plato. Limpia su ropa y debe recordar tender la toalla de baño.

Se tiene un contacto con el entorno natural y se trabaja el respeto a la naturaleza para que durante estos quince días no se estropee. Ante cualquier problema son las y los propios niños los que piden hacer una reunión y entre monitores, niñas y niños se trata de buscar una solución al mismo. Es asombrosa la madurez que muestran esos y esas niñas pequeñas discutiendo en las reuniones.

Para las niñas y niños son inolvidables las experiencias nuevas vividas en el campamento: el día de supervivencia, las fiestas después de la cena, las discusiones en las tiendas, las anécdotas de las letrinas, las excursiones, la piscina... El día de supervivencia que tanto preocupa a padres y madres es una de las cosas que más les atrae a los niños y niñas. El conseguir la comida a cambio de su trabajo en una casa o caserío del pueblo.

garbitu eta bainuko toaila zintzilikatu behar du. Ingurune naturalarekin harremanetan egoten dira eta naturarekiko errespetua lantzen da hamabost egun horietan zehar natura zainduz. Edozein arazoren aurrean hurrek beroiek eskatzen dituzte bilerak, eta hezitzaileen eta neska-mutilen artean arazo jakin horretarako konponbide bat bilatzen saiatzen dira. Harrigarria da haurrengan antzematen den heldutasuna bileratan eztabaidan aritzen direnean.

Neska-mutilentzat ahaztezinak dira kanpamentuan bizitako esperientzia berriak: bizirauteko egunak, afaldu ondorengo festak, dendetan izaten dituzten eztabaidak, komunetan gertatzen diren gorabeherak, txangoak, igerilekua... Bizirauteko eguna, gurasoak hainbeste kezkatzen dituen, jarduera erakargarrietako bat da haurrentzat. Herriko etxe edo baserriren batean egindako lanaren truke janaria lortzea, alegia. Batzuek latz egin behar izaten dute lan janari gutxiren truke eta beste batzuek, berriz, lan gutxi eginez janari goxoa lortzen dute.

Hezitzaileek ere gogoan dute sukaldeko lan gogorra, afaldu ondorengo eztabaidak eta kantuak, euriaren aurrean galdutako itxaropena, eta ilargiaren azpian izandako eztabaida filosofikoak.

Kanpamentuaren azkeneko gauean antzerkiak eta abestiak izaten dira, baita agur hunkigarriak ere.

Eta urtean zehar **auzoan** izaten diren jaietan ere parte hartzen dute, udaberriko jaiak, San Juan bezpera, Inauteriak, Gabon gaua eta abar.

Antxetatik ondoko hauek pasa dira: Atzio Oreja, Joxe Jimenez, Javi Jimenez, Elena Jimenez, Xabier Erro, Mati Navas, David Lopez, Nerea Marin, Ainhoa Permach, Iker Jauregi, Oihana Agirre, Nuria Alzugaray, Leire Maiz, Marisa Taberner, Mario, Larraitz Alkorta, Biki Murua, Maider Elezgarai, Laura Santos, Julian Eskide, Unai Martinez, Txisko, Susana, Itziar eta beste hainbeste, hau da, heziketa egitasmo zoragarri hau sendotzen lagundu duten berrogeita hamar gazte inguru.

Algunos tienen que hacer un trabajo duro para conseguir poca comida y otras en cambio con poco trabajo consiguen comida sabrosa.



Las y los educadores también tienen sus recuerdos: el trabajo duro de la cocina, las reuniones y cantos de después de la cena, la desesperanza de la lluvia, las discusiones filosóficas interminables bajo la luz de la luna.

Y se termina con la última noche inolvidable con teatro, canciones y despedidas llenas de emoción.

Además de estos temas, durante el año se participa en las fiestas que se realizan a nivel del **barrio**: fiestas de Primavera, víspera de San Juan, Carnavales, Noche Buena, etc.

Por Antxeta han pasado: Atzio Oreja, Joxe Jimenez,

Javi Jimenez, Elena Jimenez, Xabier Erro, Mati Navas, David Lopez, Nerea Marin, Ainhoa Permach, Iker

Jauregi, Oihana Agirre, Nuria Alzugaray, Leire Maiz, Marisa Taberner, Mario, Larraitz Alkorta, Biki Murua, Maider Elezgarai, Laura Santos, Julian Eskide, Unai Martinez, Txisko, Susana, Itziar y tantos otros y otras mas hasta completar unos cincuenta jóvenes que han colaborado en la consolidación de este magnífico proyecto educativo.



HIRIGINTZA KOORDINAKUNDEA

Egiako erakundeen koordinakunde honen jarduera 1984. urte aldera hasi zen Arrano elkartearen, eta bere ardura nagusia, bakarra ez bada ere, hirigintza izan da.

Ordutik aurrera jarduera-aldi desberdinak izateaz gain, aldarrikapenak, erakundeak eta arduradunak aldatzen joan dira.



Pisizina lurazpiko pasabidean / Piscina en el subterráneo.

1985eko maiatzaren 15ean, koordinakunde honetan honako organismo hauek zeuden ordezkaturak: Kostkas Kluba, Aitor Ikastola, Atotxa-Egiako Gurasoen Elkarte, Egiako Euskal Eskola, Xabier Kluba, Emakumearen Zentroa, Arrano Elkarte, C. D. Antxuene, Antxeta Atsedendialdi Elkarte, Aldakonea, Hegazkinontziak Afektatutako Auzotarrak, Donosti-Gain, Ur-Zaleak, Maria Erregina Astialdiko Kluba eta Argia aldizkaria. Arranon, Frantziskotarretan eta abar bilera ugari egin ondoren Komunikatu Publiko bat egin zuten eta bertan Udalaren Hirigintza Zerbitzuetako arduradunekin elkarrizketak egiteko asmoz ondoren adierazten diren aldarrikapenak egin zituzten:

- Trenbidearen azpiko pasabidearen egoera jasanezinari irtenbide bat ematea, etengabe urez betetzen zelako, oso argi eskasa zuelako, higiene faltagatik eta bertan izaten ziren hainbeste eskalerengatik. Premiazko Egokitzapen Proiektu bat eskatu zuten.
- Espazio publiko duin bat izatea, Mármoles Cantabria-ko lursailetan.
- Atotxako Hegazkinontzia eraistea.
- Auzoan Lizeo bat eraikitzea.
- Udalak Atotxako Dorrearen behealdean lokal bat erostea eta Antxeta elkarteari lagatzea.
- Ospitale Militarra izandakoan ezarritako Polizia Nazionalaren Kuartelak botatzea.
- Xabier Klubari utzitako lokala egokitzea.
- Hirigintzari lotutako alderdi desberdinak, Konkorrere, Baztan, Latxaga, Alai Ondo eta Aldakoneako Virgen de la Estrella-n.
- Euskal Eskolak Villa Salian zituen lokalei behin betiko konponbidea ematea.


COORDINADORA DE URBANISMO

Hacia 1984 se inician en la sociedad Arrano las actividades de esta coordinadora de entidades de Egi, que se interesan principalmente, aunque no únicamente, por el aspecto urbanístico.

Desde entonces ha vivido distintos períodos de actuación en el que se han ido renovando tanto las reivindicaciones, como las entidades o los responsables.

El 15 de Mayo de 1985 esta coordinadora en la que estaban representados los siguientes organismos: Club Kostkas, Aitor Ikastola, Asociación de Padres de Familia de Atotxa-Egia, Euskal Eskola de Egi, Club Xabier, Centro de la Mujer, Arrano Elkarte, C. D. Antxuene, Antxeta Atsedendialdi Elkarte, Aldakonea, Vecinos Afectados por el Portaviones, Donosti-Gain, Ur-Zaleak, Club de tiempo libre Maria Reina y Argia aldizkaria. Después de numerosas reuniones, en Arrano, Franciscanos, etc., hacía un Comunicado Público en el que planteaban las siguientes Reivindicaciones, con posterior entrevista con responsables de Servicios Urbanos del Ayuntamiento:

- La situación del Subterráneo intolerable, por continuas inundaciones, pésima iluminación, falta de higiene, mendicidad. Se requería un urgente Proyecto de Acondicionamiento.
- Un espacio público decente en los terrenos de Mármoles Cantabria.
- Derribo del Portaviones de Atotxa.
- Construcción de un Liceo en el barrio.
 - Compra por parte del Ayuntamiento de un local en los bajos de la Torre de Atotxa y cesión del mismo a Antxeta.



Atotxako "portaviones" / El "portaviones de Atotxa".

- Desmantelamiento del Acuartelamiento de la Policía Nacional del Antiguo Hospital Militar.
- Acondicionamiento del local cedido al Club

- Kostkas Kluberako lokalak eta futbol-zelaia Belartzan eraikitzea.

Urte batzuk beranduago **Plaza Handi** izan zen gai nagusia. Mármoles Cantabria eta Gomas Lizarribar eraitsi zuten eta "aldi baterako" azalerako aparkaleku bat jarri zuten. Udalean proiektu berri bat landu zuten plaza honetarako (laugarrena jadanik). Koordinakundeak berea aurkeztu zien, honako gai hauek barne hartzen zituen: lurrazpiko aparkalekua, kiroldegia, igerilekua, Plaza Handi, berbenetarako estal zitekeen beste plaza bat, bi frontoi, haurrentzako parke bat, erabilera anitzeko espazio bat aire zabalean, eskubaloian eta saskibaloian jolasteko kantzak markatuta izango zituen, bolatoki bat, eskalada-murru bat, kiosko antzeko plataforma estalia eta erloju bat goialdean izango zuen dorre bat. Handik gutxira eta prestaketa-lanetarako egindako hainbat bilerari, organismo desberdinen partaidetzari, auzoan antolatutako ekintzei, udaletxeraino egin ziren manifestazioei, eta udalaren arduradunekin izandako bilerei... esker, orain dugun plaza egitea lortu zuten, kiroldegiarekin, frontoi estaliarekin eta plaza zabalarekin, baina tamalez estalgabeko pista eta igerilekurik gabe.

Garrantzizko beste gai bat **Kultur Etxea** izan zen. Koordinakundetik Egian kultura lantzen diharduten organismo guztiak koordinatzeko balioko zuen kultur etxe bat aldarrikatzen zen, baita halako jarduerak ahalbidetzeko eta beste zerbitzu batzuen bidez zabaltzeko ere balioko zuena, esate baterako: liburutegia, zinema eta antzerki aretoa, bilera-gela, gaztetxerako lokal bat, betiere auzoko jendeak koordinatutakoa eta abar.

Koordinakundearen inguruan batez ere auzotarren artean izandako partaidetzak eta mobilizazioak eraginda lortu da oraingo Kultur Etxea.



Gomas Lizarribar.

Beste gai bat **Atotxako etxebizitzan** ingurukoa izan da. Behin eta berriro etxebizitza horiek babes ofizialekoak izan behar zutela eta arrazoizko

Xabier.

- Diversos aspectos urbanísticos de la cuesta de Konkorrenea, Baztan, Latxaga, Alai ondo y Virgen de la Estrella de Aldakonea.

- Solución definitiva a los locales de la Euskal Eskola en Villa Salia.

- Locales para el Club Kostkas y construcción del campo de fútbol de Belartza.



Marmoles Cantabria

Unos años más tarde el tema principal era el de **Plaza Handi**. Habían derribado Mármoles Cantabria y Gomas Lizarribar y "provisionalmente" habían pues to un aparcamiento de superficie. En el ayuntamiento habían realizado un nuevo proyecto para esta plaza, (ya era el cuarto). Los de la coordinadora les presentaron el suyo en el que iba: aparcamiento subterráneo, polideportivo, piscina, Plaza Handi, otra plaza susceptible de ser cubierta para verbenas, dos frontones, un parque infantil, un espacio multiuso al aire libre con las canchas de balonmano y baloncesto marcados, un bolatoki, un rocódromo, una plataforma cubierta a modo de quiosco y una torrecilla coronada por un reloj.

Poco tiempo después y gracias a las numerosas reuniones preparatorias, participación de distintos organismos, movidas realizadas en el barrio, manifestación hasta el ayuntamiento, reuniones en el ayuntamiento con responsables municipales, etc., se lograba la realización de la plaza actual, con su polideportivo, frontón cubierto y plaza amplia, aunque es una pena que desecharan la piscina, la pista descubierta, etc.

Otro de las temas importantes era el de la **Casa de Cultura**. Desde la coordinadora se reivindicaba un kulturetxe que sirviera para coordinar a todos los organismos que hacen cultura en Egia, facilitar estas actividades y ampliarlo con otros servicios como biblioteca, sala de cine y teatro, salas de reuniones, sala de conferencias, un local para el

prezioan saldu behar zirela defendatu izan da. 1996ko udan udalbatzak onetsitakoaren arabera, %50 bakarrik izango ziren babes ofizialekoak. Auzotik bi mila sinadura jaso

zituzten, eta solasaldiak, mahainguruak eta manifestazioak egin zituzten. Eta horren ondoren, babes ofizialeko etxebizitzak %75 izatea lortu zuten.

Azkenean, hauxe izan zen emaitza:

192 etxebizitza, gutxi gorabehera 13.250.000 pezetatan salgai.

92 etxebizitza, gutxi gorabehera 15.600.000 pezetatan salgai.

104 etxebizitza alokairuan, hilabeteko 25.000 pezetako errentarekin

1997 eta 1999 urteetan **Egia Bizirik** aldizkaria kaleratu dute. Aldizkariak zortzi orrialde ditu eta Egiako etxe guztietako buzoietan sartu izan da. Bertan, egiatarren bizi-baldintzak hobetzeko ekintzak eta nahiak adierazten dira, baita Egian diharduten organismoen jarduerak ere.

Koordinakunde honetan, erakunde desberdinetako ordezkariez gain, aldi desberdinetan eta koordinazio-lana eginez besteren artean ondoko pertsona hauek aritu izan dira: Mari Karmen, Mikel, Maritxu, Fede, Juanmari, Joxepo, Itziar, Teresa, Karlos eta abar..

gaztetxe, que estuviera coordinada por gente del barrio, etc.

Debido principalmente a la participación y movilización de las y los vecinos alrededor de esta coordinadora, se ha conseguido la Casa de Cultura actual.



Otro tema ha sido el de las **Viviendas de Atotxa**. Una y otra vez se ha defendido que estas viviendas tenían que ser todas de protección oficial y a precios asequibles. En el verano de 1996 el pleno aprobó que iban a ser solamente el 50% de protección oficial. Se llevaron dos mil firmas del barrio, se organizaron charlas, mesas redondas, manifestaciones... Posteriormente se subió al 75%. Y al final fueron:

192 pisos, en venta a un precio de unas 13.250.000 ptas.


92 viviendas, en venta a un precio de unas 15.600.000 ptas.

104 viviendas, en régimen de alquiler, con un precio de 25.000 ptas. al mes.

En 1997 y 1999 han sacado la revista **Egia Bizirik** de ocho páginas, que ha sido buzoneada por todas las casas de Egia, en la que reflejan sus actuaciones y deseos para mejorar las condiciones de vida de los egiatarras, así como las actividades de los organismos que funcionan en Egia.

Por esta coordinadora, aparte de los representantes de los diversos organismos, en los distintos períodos y

realizando el trabajo de coordinación han pasado, entre otras las siguientes personas: Mari Karmen, Mikel, Maritxu, Fede, Juanmari, Joxepo, Itziar, Teresa, Karlos, etc.



GAZTETXEA-GAZTE ASANBLADA

Gazte talde batek 1987ko maiatzean Jareño fabrika zaharreko lokal batzuk hartu zituen eta bertan Gaztetxe bat antolatu zuten.



Eskura zituzten baliabide ekonomikoek arabera, asanbladan erabakitako jarduera batzuk burutu zituzten. Gitarra eta txalaparta ikastaroak, bideo proiektzioak, kontzertuak, irteerak autobusean, areto-futbol txapelketak, mus txapelketak eta abar antolatu zituzten.

Baina Udalak Jareñoko instalazio guztiak botatzea erabaki zuen eta gazteak indarrez atera zituzten beste inolako alternatibarik eman gabe.

Urte batzuk beranduago, beste gazte talde batek Karmengo Andre Mariaren kalearen hasieran, farmaziaren ondoan zegoen lokal bat hartu eta gaztetxe gisa erabili zuen denboraldi batez, eta bertan jarduera desberdinak antolatu zituzten baita ere. Baina lokala hustu behar izan zuten bertan etxebizitza berriak egin behar zituztelako.



1999an gaztetxe baten premia sortu zen berriro eta hamabost bat gazte bildu ziren, langabeziaren, gurasoen etxetik independentzia lortzeko ezintasunaren eta bizi dituzten halako egoera latzen aurrean gazteriarri alternatiba bat emateko jarduerak antolatzearen, eta ETTen eragina eta erantzukizuna edota auzoan hutsik dauden 800 etxebizitzak aztertzearen.

Baina arazo larri horiez gain, beste gai batzuk ere kontuan hartu dituzte: euskal kultura, sexualitatea, droga, Gaztetxe baterako lokal bat lortzea eta abar. Gainera, Zirika aldizkaria kaleratu dute urtebetez.

GAZTETXE-GAZTE ASANBLADA

En Mayo de 1987 un grupo de jóvenes ocupó unos locales de la antigua fábrica de Jareño y organizaron un Gaztetxe.



Llevaron adelante una serie de actividades, que iban decidiendo en asamblea, dependiendo siempre de los medios económicos. Organizaron cursillos de txalaparta y guitarra, proyecciones de vídeo, conciertos, salidas en autobús, campeonatos de futbito, mus, etc.

Pero en el Ayuntamiento decidieron derruir todas las instalaciones de Jareño y sacaron a las y los jóvenes por la fuerza sin dar ninguna otra alternativa.

Unos años después otro grupo de jóvenes ocuparon y utilizaron como gaztetxe por un tiempo un local del comienzo de la calle Virgen del Carmen, al lado de la farmacia, donde se hicieron diversas actividades, hasta que los desalojaron y tiraron la casa para hacer nuevas viviendas.



En 1999 vuelve a aparecer esta inquietud y se reúnen una quincena de jóvenes para organizar actividades con el fin de dar una alternativa a la juventud, ante la grave situación que están pasando con el paro, la precariedad en el trabajo, su imposibilidad de independizarse de la casa de sus padres, etc. Tratan sobre la influencia y la responsabilidad que tienen las ETTs, o las 800 casas vacías que existen en el barrio.

Pero si esos son los principales problemas, tampoco se olvidan de otros temas: la cultura vasca, la sexualidad, la droga, el logro de locales para un Gaztetxe, etc.. También han sacado la



Ikus daitekeenez, gazte talde horiek belaunaldiz belaunadi txandakatzen dira eta kezkatzen dituzten gaiak errepikatu egiten dira: lana, etxebizitza,... garai bakoitzari dagozkion ezaugarrien arabera eta topaleku baten premiak bultzatuta: Gaztetxea.

revista Zirika durante todo el año.



Como se ve, estos grupos de jóvenes se va alternando generacionalmente y se van repitiendo los temas que les preocupan: trabajo, vivienda,... con las características de cada época y la necesidad que tienen de un lugar de encuentro: el Gaztetxe.

SENIDEAK

Auzoko preso politikoen senideek eraturako erakunde hau 1991n sortu zen pertsona horien arazoak sozializatzeko eta beren eskubideak defendatzeko, eta horretarako enkarteladak, solasaldiak eta abar antolatzen dituzte.



Duela bost urte beren lehenengo aldarrikapena presoak beren herrialdetik gertu, alegia Euskal Herrian dauden espetxeetara hurbiltzea izan da. Eskari hori

bera Euskal Herriko gehiengo politikoak, sozialak eta sindikalak egin du hainbat modutan, hau da, grose grebak, mobilizazio masiboak eta Udaletan, Gasteizko Legebiltzarrean eta abar deklarazio instituzionalak eginez. Eskari honen oinarria hau da, Espainiako Estatuaren legeria penitentziarioa bera, legeria honen arabera presoek beren gizarte eta famili inguruetik gertu dauden espetxeetan bete behar baitituzte zigorrak.

Horrez gain, dagozkien gainerako eskubideak errespetatu daitezkeen defendatzen dute, esate baterako zigorraren hiru laurdenak bete ondoren edo gaixotasun larriengatik kartzelatik ateratzea eta abar. Erakunde hau sortu zenetik auzoko pertsona asko hurbildu da presoengana, egoera tamalgarri horretan daudela ikusita.

Beren kezkak hedatzeko eta beren aldarrikapenak lortzeko, ostegunero egiten dituzte mobilizazioak auzoko kaleetan zehar.

SENIDEAK

Este organismo formado por los familiares de las y los presos políticos vascos del barrio, surgió en el año 1991 con el objetivo de socializar el problema de estas personas y defender sus derechos, realizando encarteladas, coloquios, etc.


Desde hace unos cinco años su primera reivindicación ha sido la de que sean trasladados los presos a cárceles cercanas a su pueblo, a Euskal Herria. Esta demanda ha sido solicitada por la mayoría política, social y sindical del País Vasco de numerosas formas, desde huelgas de hambre, hasta movilizaciones masivas e incluso por todo tipo de declaraciones institucionales en Ayuntamientos, Parlamento Autónomo de Gasteiz, etc. Esta petición se sustenta en la propia

legislación penitenciaria del estado español, que fija el cumplimiento de las penas en cárceles próximas al entorno social y familiar de los reclusos.

Defienden además que les sean respetados los otros derechos que les corresponden, como la excarcelación una vez cumplidas las tres cuartas partes de condena o enfermedad grave, etc.

Desde que surgió esta asociación han sido numerosas las personas del barrio que han acudido a ellos al encontrarse en esta penosa situación.

Para propagar sus inquietudes y conseguir sus reivindicaciones, realizan movilizaciones todos los jueves por las calles del barrio.



KRISEILU-BAGERA EUSKARA TALDEA

Kriseilu Euskara Taldea 1991. urtearen inguruan sortu zen Egunkariaren kanpainan. Bertako partaideak Aitor Ikastola, AEK, Trebeska eta Euskal Herrian Euskaraz erakundeetatik eta auzotik sortutako jendea izan da.

1997. urtearen inguruan Egiako Bagera taldearekin elkartu ziren.

Beren helburua hizkuntzaren eta kulturaren eremuan jendea euskalduntzeko ahalik eta baliabide gehienak eskuetan jartzea izan da.

Burutu dituzten jardueren artean aipatzekoa da auzoko dendetan Publizitatea Euskaraz kanpaina bultzatu izana.

KRISEILU-BAGERA EUSKARA TALDEA

Kriseilu Euskara Taldea se creó hacia 1991 en la campaña del Egunkaria. Sus participantes procedían de la Ikastola Aitor, AEK, Trebeska, Euskal Herrian Euskaraz y también varios vecinos y vecinas del barrio.

Hacia el año 1997 se unieron con el Talde de Bagera de Egia.

Sus objetivos han sido el poner los recursos posibles para la euskaldunización en el ámbito del idioma y de la cultura.

Entre sus actividades está la de impulsar la campaña de Publicidad en Euskera en los comercios del barrio.



TTAN TTAKUN AISIALDI-GAZTE ELKARTEA

Ametzagaina Elkartek utzi tako Karmengo Andre Mariaren 60. zenbakiko lokaletan hasi ziren 1994an, Antxetan amaitzen zuten 12 urteko gazteei 17 urtera arte bertan jarraitu ahal izateko aukera eman nahian. Helburua 270 bazkideei zerbitzu publiko bat ematea da, Antxetaren proiektu pedagogikoan oinarritua eta elkarlanean arituz. Lokalean gai desberdinen inguruko tailerrak antolatzen dira: serigrafía, malabarrak, txalaparta, gitarra... Bertan liburutegi bat dago, sexualitateari buruzko hitzaldiak ematen dira, filmak proiektatzen dira, eta txangoak, udaldiko "Abenturaz blai" izeneko hamabost eguneko kanpamentuak eta abar antolatzen dira.

Gazte Lokal honetan, 1995ean Ttan Ttakun irratia sortu zen. Lehenengo urteetako dinamika esperimentalak izan zen, 106.8 FM frekuentzian egunero irratia-saio bat edo bi eskainiz. Baina urteak aurrera joan ahala gero eta kolaboratzaile gehiago izan dituzte eta emititzeko ordutegia zabaltzeko aukera izan dute.

1997an emisioaren kalitatea hobetzen hasi zen,

TTAN TTAKUN AISIALDI-GAZTE ELKARTEA

Se inició en 1994 en los locales de Virgen del Carmen 60 cedidos por Ametzagaina Elkartea, con el propósito de dar continuidad hasta los 17 años, a las y los jóvenes de 12 que acababan en Antxeta.

El objetivo es dar un servicio público a las y los 270 socios, basado en el mismo proyecto pedagógico de Antxeta con el que se hace un trabajo en común. En el local se realizan talleres de distintas materias: serigrafía, malabares, txalaparta, guitarra..., existe una biblioteca, se dan charlas de sexualidad, se proyectan películas, se hacen salidas, en verano se hacen campamentos nómadas llamados "Abenturaz blai", etc.

En este Gazte Lokala en 1995 surgió Ttan Ttakun irratia. La dinámica de los primeros años fue experimental habiendo ofrecido uno o dos espacios radiofónicos diarios en la frecuencia 106.8 FM. Pero al paso de los años ha ido aumentando los colaboradores y ha habido la posibilidad de incrementar el horario de emisión.

potentzia handitu zen eta Euskara Patronatutik jasotako diruari esker seinalea Donosti guztira iristen da.



En 1997 se empezó a mejorar la calidad de emisión, se aumentó la potencia y gracias al dinero recibido del Patronato de Euskara la señal llega a todo Donostia a un buen nivel.



Euskararen normalizaziorako tresna bat dugu, euskal kultura lantzeko, auzoaren bizimodua eta problematika aztertzeko, auzoko mugimenduak ezagutzera emateko eta abar.

Gero eta entzule gehiago eta zeregin honetan lankidetzan aritzeko gero eta bolondres gehiago ditu. Eta proiektuan lagundu nahi duten guztiei egiten zaie harrera.

Hona hemen elkarte honetatik pasa diren pertsona batzuk: Atzio, Elena Jimenez, Nuria Alzugaray, Aingeru Mayor, Biki, Unai Martinez, Txisko..., guztira 25 bat kolaboratzaile izanik proiektu erakargarri honetan parte hartu dutenak.

Se trata de ser un instrumento para normalizar nuestro idioma el euskara, de trabajar la cultura vasca, tra-tar la vida y la problemática del barrio, los movimientos vecinales.

Cada vez tiene más oyentes y más voluntarios en este cometido. Y están abiertos a todas y todos los que quieran colaborar en este proyecto.

Por esta asociación han pasado: Atzio, Elena Jimenez, Nuria Alzugaray, Aingeru Mayor, Biki, Unai Martinez, Txisko..., hasta un@s 25 colaboradores que han hecho posible este atrayente proyecto.

ZAI ZOI KOORDINAKUNDEA

Kultur Koordinakundea da, auzoko elkarte ugari biltzen dituen: Trebeska Dantza Taldea, Xabier Mendi Taldea, Aitor Ikastola, Antxeta Atsedendialdi Elkarte, Egiako AEK Euskaltea, Emakume Zentroa, Porrontxo Jai Batzordea, Hirigintza Koordinakundea, Ttan Ttakun Elkarte, Latxaga Guraso Elkarte, Lauaizeta Elkarte, Gazte Asanblada, Kriseilu Euskara Taldea eta abar, eta guztien arteko koordinazioa eta lana elkartu eta ziurtatzeko topalekua da.

1995ean hasi zen auzoko kultur giroa indartzeko, euskal kultura sustatzeko eta elkarten talde-lana eta koordinazioa bultzatzeko. Auzotarren partaidetza areagotzea eta ezaugarri eta interes orokorreko jarduerak antolatzea dira bere helburuak.

Kultur Patronatuarekin negoziazioetan aritu ondoren, akordio bat lortu zuten auzoak Kultur Etxean zuen partaidetzari dagokionez. Eta Elkarte Txokoa sortu zen, Egiako elkartei koordinazio, aholkularitza, informazio eta lanerako espazio bat eskaintzen diena.

KOORDINADORA ZAI ZOI

Es una Coordinadora Cultural que aglutina a numerosas asociaciones del barrio: Trebeska Dantza Taldea, Xabier Mendi Taldea, Aitor Ikastola, Antxeta Atsedendialdi Elkarte, Egiako AEK Euskaltea, Emakume Zentroa, Porrontxo Jai Batzordea, Hirigintza Koordinakundea, Ttan Ttakun Elkarte, Latxaga Guraso Elkarte, Lauaizeta Elkarte, Gazte Asanblada, Kriseilu Euskara Taldea, etc. y es un lugar de encuentro para agrupar y asegurar la coordinación y trabajo de todas ellas.

Se inicia en 1995 con los objetivos de dinamizar la vida cultural del barrio, fomentar la cultura vasca, el trabajo colectivo y coordinación de las asociaciones. Impulsar la participación de las y los vecinos y asociaciones del barrio y organizar las actividades con características generales y de interés colectivo.

En nuestro barrio existían dos tipos de sidrerías:

- Las que vendían la sidra que les suministraban los cosecheros ubicados en otros lugares:

- . Una estaba situada al principio de la cuesta de Aldakonea.
- . Otra en Duque de Mandas nº 47, enfrente de la Tabacalera.
- . Había otra en la bodega de Egia nº 4, propiedad de la familia Mugica y regentada por Basilio.

- Las que disponían de lagar propio y comercializaban su propia sidra:

- . La más importante de éstas por su espacio y ubicación (esquina del principio de la subida al cementerio), fue Irubide, después llamada Faustino y posteriormente Eizmendi sagardotegia. Tenía bolatoki donde se llegaron a disputar campeonatos de Gipuzkoa.

. En el caserío Latxaga hasta 1952 había otra. En Kullasenea había otra propiedad de Mariano

. Egia kalean, 30. zenbakiaren atzeko aldean, Etxabe sagardotegia zegoen. Zeinek Frontoi txiki bat, arkupea eta lorategia zituen.



Eizmendi sagardotegia.

Aranburu.

. En Egia en la parte trasera del nº 30 estaba la sidrería Etxabe que tenía un pequeño frontón, un arkupe y un recinto ajardinado.



Etxaberen sagardotegia.



ANTZINAKO KALEKO JOLASAK

Orain dela berrogeita hamar urte gure auzoko neska-mutiek gaur egungoen aldean dibertitzeko oso jolas desberdinak genituen. Garai hartan ez genuen ez telebistarik ez ordenagailurik, ezta telefonorik ere. Ez genuen judo egitera, ingelesa ikastera edo igeri egitera joan beharrik. Baina bagenuen txiba, kanika, kromo, txapa, iltze, kurkuluxak, sokasaltorako soka, lurrean marrazteko klariona eta bestelako tramankulurik. Kaleetan ez zen ia autorik ibiltzen, lursail dezente urbanizatu gabe zeuden eta parke hostotsu zein hurbileko mendietan korrika egin eta gure irudimenari bide emateko nahikoa leku bagenuen. Klasetik aterata, denbora asko ematen genuen geure lagunekin jolasean.

Era askotariko jolasak zeuden. Batzuk auzoan bertan sortutakoak ziren, beste batzuk, berriz, Euskal Herri osoan ezagunak zirenak. Denboraren joanean, ordea, leku guztietan jolas berak nagusitzen joan dira. Haurrek mekanizatutako aparailu berekin egiten dute jolas eta telebistak hainbeste nabarmentzen dituen kirolak baino ez dituzte egiten.

Kontua da gu kalean ibiltzen ginela jolasean, taldeetan bilduta. Mutilak zuhaitzetara igo ohi ginen, txapetan edo parkean jolasean galtzak guztiz zikintzen genituen, belauak urratu edo txiba behin eta berriz kiribilkatzeagatik eskuetan babak ateratzen zitzaizkigun, eta erorikoren batean hortzen bat hautsita, edo gezi, ezpata zein tiragomarekin buruan jota sorospen-etxera joan beharrik ere izaten zen tarteka, zauria sendatzera. Neskak, berriz, sokasaltoan, txingoan, kromotan edo patinetan

ANTIGUOS JUEGOS DE CALLE

Hace cincuenta años los niños y niñas de nuestro barrio nos divertíamos de una forma muy distinta a la de hoy en día. Entonces no teníamos televisión, ni ordenador, ni siquiera teléfono. Tampoco teníamos judo, clase de inglés, ni piscina, pero teníamos una txiba, canicas, cromos, txapas, un clavo, tabas, una cuerda para saltar, una tiza para pintar el suelo... En las calles apenas había coches, bastantes terrenos estaban sin urbanizar y había un parque muy frondoso y mucho monte cercano donde correr o desarrollar nuestra fantasía. Después de clase pasábamos mucho tiempo jugando en la calle con nuestros amigos y amigas.

Había una gran variedad de juegos. Algunos eran propios del barrio y otros específicos de Euskal Herria, cosa que con el tiempo va desapareciendo y se tiende a jugar en todos los lugares a los mismos juegos con los mismos aparatos mecanizados y a realizar los mismos deportes que nos machacan por la televisión.

Lo cierto es que nosotros nos divertíamos en la calle, jugando en distintos grupos. Los chicos nos subíamos a los árboles, nos manchábamos los pantalones jugando a las txapas o en el parque, constantemente nos hacíamos heridas en las rodillas o nos salían ampollas de tanto enroscar la txiba, o se nos rompían los dientes en alguna caída y algunas veces teníamos que ir al cuarto de socorro a que nos cosieran la cabeza que nos habían herido de un certero flechazo, de un espadazo o de un tiragomazo. Mientras las chicas jugaban a saltar a la

ibiltzen ziren, erortzeko keinurik egin gabe, gainera, eta mutilek harrিতта begiratzen genien.

Neskak txingoan jolasten ari zirela hurbiltzen ginen mutilok berengana, ez bestetan, eta orduan ere zirikatzeke aitzakiarekin. Ez genuen elkar ezagutzen eta elkarren berri batere jakin gabe, batzuek besteak zirikatzea besterik ez zitzaigun bururatzten. "Hip, hip hurra, las chicas a la basura" eta alderantziz abestuz ematen genuen eguna. Mutilok arratsalde osoa baloi batekin jolasean igarotzea neskek ez zuten ulertzen, eta guk ezin genuen inolaz ere ulertu sokasaltoan "soy la reina de los mares" kantatuz hainbeste ordu nola pasa zitezkeen.

Ume garaia gaurkoek baino zoriontsuago igaro genuela iruditzen zaigu, baina seguru asko nostalgiaren bideak garamatza tankera horretako pentsamenduetara. Dena den, ahaztu egiten gara beste zenbait pasartez. Esaterako, Zuhaitzin eta Atotxako pasealekuan udaltzainek futboleko jolasten uzten ez zigutenean nola amorrarazten ginen edo frontoian geunden gaztetxoak nagusiek nola bidaltzen gintuzten. Hala ere, gaur egungo haurrak bakarzaleagoak direla dirudi, besteak beste, telebista eta ordenagailua lekuko. Kontsumorako joera handiagoa dute, gainera. Izan ere, errazagoa zaie aisialdirako materiala eta jostailuak eskuratzea. Lehiarako ere prest daude beti. Egia esan, gizarteak berak daramatza bide horretatik. Sormenari dagokionez, urriagoak dirudite zenbait unetan. Lehen, jostailurik ez genuenez, irudimena lantzen genuen, makila soil bat zerbatana, tiragoma edo ezpata bihurtuz. Era berean, edozein aulki mota zaldirik bikainenaren pare jartzen genuen. Orain, ordea, edozein jostailu dendatan aurki dezakegu benetakoaren gisan mugitzen den eta irrintzi ere egiten duen zaldirik. Alabaina, pedagogia aurrerazaleagoari esker, hezkuntzaren eta biztanleriaren zenbait sektoretan sormena bultzatzen lan handia egiten da. Egungo gaztetxoak ez dira, dirudienez, lehen bezain astokozkorrak.

Bestalde, hainbat ludotekatan begirale adituak daude eta gaztetxo hauei dagokien pedagogia jorratzen lan handia egiten ari dira. Gure auzoan Antxeta Taldea egiten ari den lan eskerga nabarmendu genezake.

Jarraian aipatuko ditugun hauek dira garai bateko jolasak:

A la una anda la mula, a las dos tira una coz, a las tres los tres saltitos de San Andres, a las cuatro culada que te parto, a las cinco un gran brinco. Horrela kontatzen genuen makurtuta zegoenaren gainetik hainbat salto egiteko orduan.

Alpargata, denak elkarren ondo-ondoan ilaran

cuerda, a los txingos o a los cromos o andaban con increíble seguridad con los patines, ante la envidia de los chavales.

Los chicos no nos acercábamos a las chicas mas que para fastidiarles mientras jugaban a los txingos. Nos despreciábamos tanto como nos desconocíamos y cantábamos "hip, hip, hurra, las chicas a la basura" y viceversa. Ellas no entendían como podíamos pasar la tarde entera jugando con un balón y a nosotros no nos entraba en la cabeza que se pasaran horas cantando "soy la reina de los mares", mientras saltaban a la cuerda.



Comparando aquella niñez con la actual, nos parece que la nuestra fue más feliz, aunque seguramente ese pensamiento será fruto de la nostalgia y nos olvidamos de cuando nos prohibían jugar a fútbol los policías municipales en Zuhaitzi o en el paseo de Atotxa, o cuando venían los mayores al frontón y nos mandaban de la cancha que estábamos jugando los pequeños. Lo que si parece es que la niñez de hoy es más individualista, debido a la existencia de la televisión y el ordenador, entre otras cosas; más consumista, por la mayor facilidad y posibilidad que se tiene de comprar material de ocio, juguetes, etc.; más competitiva, ya que son los valores que más se inculcan en esta sociedad; menos creativa, en algunos aspectos, debido a que antes la inexistencia de juguetes potenciaba la imaginación creando de un palo una cerbatana, un tiragomas o una espada o de cualquier asiento un soberbio caballo, cuando ahora los podemos adquirir en la juguetería y el caballo se mueve y hasta relincha, aunque esta situación coexiste con la práctica de una pedagogía más progresista que potencia la creatividad en algunos sectores de la enseñanza y de la población; y por último menos bruta que la de antes.

Bien es verdad que ahora hay algunas ludotecas que son centros dirigidos por monitores especialistas, que realizan una pedagogía adecuada a la mentalidad de las y los pequeños, como tan bien se hace en Antxeta Taldea que está realizando una gran labor en nuestro barrio.

Estos eran algunos de los juegos de aquel entonces:

jarrita. Eskuak atzealdean jarri eta alpargata gordetzen genuen, alpargata eskuz esku pasatuz. Alpargata nork zuen asmatu ezinean zelatan zegoenak besteek aldian-aldian alpargatarekin emandako ipurdikoren bat jasotzen zuen.

Uztaia: Orduak pasa genitzakeen kupela baten uztaia lurrean biraka eramanez, makina bat izerdiz tolestutako alanbrea lagun.

Potea: ezkutaketan jolastea litzateke, baina aldaketaren batekin. Joko honetan besteak salbatzeko aukera dago, potea dagoen biribilera gelditzen dena baino lehenago iritsiz gero. Orduan poteari ostiko jo behar dio parte-hartzaileak. Zenbat eta urrunago jaurti, orduan eta hobe, gelditzen denak lan gehiago izango baitu hura bere lekura ekartzen. Horrela, jokoari hasiera emango zaio berriro ere.

Katea. Zirkuitu bat bete behar genuen, Atotxako zuhaitzetatik Mujikaren tailer parera arte. Gelditzen zenak kontrako ibilbidea egin behar zuen. Irteeratik mugara iristeko bidean, norbait ukituz gero, bere kateara batzen zen, denak katea berean bildu arte.

Kaniketan. Buztin, harri edo kristalezkoak. Bertan txulo deitzen genion jolasari. Hiru joaldirekin txuloan sartzea zen gakoa. Bestela berriz, ibilbiderik harrigarrienak osatzen genituen, sakonune, bihurtune eta baita tunelekin ere. Trebeenek hatz lodiaren lehen eta bigarren falangearen artean kokatzen zuten kanika, eta indar handiz bidaltzen zuten kanika urrun edo erdi ezkutuan zegoen beste kanikaren baten kontra, honi salto eginarazteraino. Beste batzuek, berriz, nahikoa genuen hatz lodiaren azkazalean jarri eta indar gutxiagorekin jaurtitzearrekin.



Korroan: Biribilean elkarren eskutik helduta dantza eginez eta “al corro de las patatas comeremos ensalada”, “la señorita Pili ha entrado en el baile” etab. kantatuz.

Futbolari, zinemako izar, Robin Hood, Edurne Zuri eta beste hainbaten **kromo** bildumak eta mapak

A la una anda la mula, a las dos tira una coz, a las tres los tres saltitos de San Andrés, a las cuatro culada que te parto, a las cinco un gran brinco y así hasta ventitantos contábamos mientras dábamos saltos distintos por encima del “para” que estaba agachado.

La alpargata, con todos sentados muy juntos en hilera y las manos por detrás donde escondíamos la alpargata y el “para” tenía que buscarla mientras nos la pasábamos de mano en mano y de vez en cuando le dábamos con ella en el culo.

Al aro: Nos podíamos pasar horas rodando el aro de una kupela, que lo llevábamos con una guía alargada de alambre doblada tras muchos sudores.

Al bote que se ponía en un círculo, es una variación del escondite en el que podías salvar a los atrapados si llegabas antes que el “para”, en cuyo caso chutabas el bote lo más lejos posible y el “para” tenía que traerlo y volver a empezar.

A la cadeneta. Se iba por un circuito, normalmente entre los árboles de Atotxa al lado de la fábrica de Mugica y el “para” iba a la contra de los demás y al pasar cuando tocaba a alguien, éste se unía en cadena y así hasta completar a todos.

A Canicas de barro, piedra o cristal a bertan txulo con tres klis y metida en el txulo, o en un circuito con hondonadas, grandes peraltes y hasta con túneles. Los más hábiles colocaban la canica entre la primera y segunda falange del pulgar y la lanzaban con una fuerza que hacía saltar a la contraria aunque estuviera lejos o medio escondida, y los demás nos conformábamos lanzándola más suave al colocarla en la uña del dedo pulgar.

Al corro: Bailando en corro y cantando "al corro de las patatas comeremos ensalada", "la señorita Pili ha entrado en el baile", etc.

Se hacían colecciones de **cromos** de futbolistas, artistas de cine, de Robin Hood, de Blanca Nieves, de mapas, etc. Al completar la colección de mapas te daban un premio y muchos coincidimos que teníamos la colección completa y sólo nos faltaba el nº 33. Habían hecho una tirada muy escasa de este número y claro, apenas había premios. Las chicas jugaban con cromos de flores, recortables, etc., poniendo un cromos cada una en el suelo del reverso y dándole un golpe con la mano ahuecada tenían que darle la vuelta para ganarlo.

osaten ziren. Bilduma amaituz gero, sari bat ematen zuten. Dena den, asko geratzen ginen 33. zenbakiaren faltan. Zenbaki hau zuen kromoaren ale gutxi argitaratu zituzten nahita, eta, jakina, saridunak ere banaka batzuk izaten ziren. Neskek loreen kromoekin eta ebakigarriekin jolasten zuten. Lurrean kromo bana jartzen zuen bakoitzak eta bi kromoen jabe izateko, esku ahurrarekin kolpe bat emanaz, buelta eman behar zieten kromoei.

Laukiak. Zenbat parte-hartzaile, hainbat lauki marrazten ziren lurrean. Txanpona errara (marra) botata erabakitzen zen parte-hartzaileen ordena. Bakoitzari lauki bat egokitzen zitzaion. Lehenengoak bere lauki barrura jaurtitzen zituen txanponak. Hurrengoak, berriz, kanpoan geratutakoak hartu, eta beren koadroetan sartzen saiatzen ziren.

Sokasaltoa. Neskak oso abilak ziren sokasaltoan eta makina bat abesti abesten zuten saltoka ari zirela: "el patio de mi casa es particular", "al cocherito lere, me dijo anoche lere", "a buscar las llaves matarile", "al pimiento colorado, azul y verde la señorita Maritxu casarse quiere", etab. Mutilen bat sokasaltoan hasiz gero, sokarekin traba eginda bere hala galtzen zuen oreka, eta lurrera ez erortzea erronka itzela izaten zuen.

Diaboloa. Harrigarria zen, diaboloa hain gora jaurti ondoren, soka artean lurrera jo aurretik nola hartzen zuten ikustea.

Ezkutaketan. Gelditzen zenak 20, 40ra arte kontatu behar zuen. Besteek denbora tarte horretan ezkutatu egin behar zuten ahalik eta ondoen. Gelditzen zenak adi ibili behar zuen, batetik, nor edo nor aurkitzeko, eta, bestetik, norbait bere lekura bera baino lehenago iritsi, eta lehendik aurkitutakoak eta bere burua salba ez zitzaion. Jolas honetarako leku aproposa Martín Santos zen, sarrerako pinuen itzalean.

Goitibehera. Lehenengo goitibeherak Altuna Marmolak lantegitik hartutako marmol zatiz egindakoak ziren. Goitibehera hauetan eseri eta Aldakonea aldapatik behera abiatzen ginen. Zeregin honetan makina bat galtza zulatutakoak gara. Gerora, egurra eta errodamendua erabiliz, modernoagoak egiten hasi ziren.

Zaindariak eta lapurrak. Korroan jarri eta batek hau esaten zuen: "madre e hija fueron a misa, le encontraron a un marques le dijeron que hora es; la una, las dos, las tres, las cuatro, las cinco, las seis, las siete, las ocho, con pan y bizcocho, liebre cazador,

A los cuadros. Se hacían tantos rectángulos como participantes. El orden de participación se decidía tirando a la erra (raya) con la moneda. A cada cual le tocaba un cuadro. Tiraba el primero todas las monedas procurando que entraran en su cuadro y esas quedaban para él y así sucesivamente iban tirando el segundo y tercero con las monedas que iban quedando fuera de los cuadros.

A la cuerda. Las chicas solían jugar a la cuerda con gran habilidad mientras se cantaban algunas canciones, "el patio de mi casa es particular", "al cocherito lere, me dijo anoche lere", "a buscar las llaves matarile", "al pimiento colorado, azul y verde la señorita Maritxu casarse quiere", etc. y si alguna vez entraba un chico enseguida perdía trabándose con la cuerda y contento si no se caía al suelo.



Al diábolo. Era asombroso observar cómo volvían a coger el diábolo con las cuerdas antes de llegar al suelo, después de haberlo enviado tan alto.

Al escondite. El "para" tenía que contar hasta 20, 40... los demás se escondían y había que buscarlos y tener cuidado de que alguno no corriera más que él al puesto del "para" e hiciera "safo" salvando al resto "libre por mi y por todos mis compañeros". Un sitio excelente para este juego era Martín Santos, para escondernos entre los pinos de la entrada.

La goitibehera. Las primeras goitibeheras eran trozos de mármol, cogidos de Mármol Altuna, en donde nos sentábamos y nos txirriábamos por la cuesta de Aldakonea. En ese quehacer ya nos hemos roto algunos pantalones. Luego se hacían otros más modernos con maderas y rodamientos.

Guardias y ladrones. Nos poníamos todos en corro y uno decía "madre e hija fueron a misa, le encontraron a un marqués le dijeron que hora es; la una, las dos, las tres, las cuatro, las cinco, las seis, las siete, las ocho, con pan y bizcocho, liebre

guardia y ladrón". Hori esaten ari zela banan-bana kontatzen zituen parte-hartzaileak. Azkenurrekoa zaindaria izango zen eta azkena, berriz, lapurra. Bi talde egiten ziren jarraian, eta zaindariak lapurrak harrapatzea zuten helburu.

Jardinera. Txorro morro jolasaren antzekoa zen, baina biribil batean egiten zen. Gainera, inguruan zebilen batek harrapatu aurretik egin behar zen salto.

Pe hotsarekin hitz egitea. (Jupu gapa mospo apa hapa blarpa conpo lapa pepe).

Kinkinean. Iltze handiekin edo etxetik ekarritako bihurkin batekin jolasten genuen. Lursaila bitan banatzen zen eta batak besteari lurra kentzea zen kontua, lursail osoa bereganatu arte. Lehenengoak besteari lursaila sartzen zuen iltzea. Iltzearen inklinazioak adierazten zuen norantzari jaramon eginez, marra bat egiten zen eta lursailik handiena eskuratzen zen. Parte-hartzaileak Iltzea berriz botatzeko aukera zuen, baina lurrean tinkatu ezean, beste parte-hartzailearen txanda izango zen. Norbaitek lursail osoa lortzean bukatzen zen jolasa.

Kurkuluxetan. Arkumeen kurkuluxekin jolasten genuen eta kurkuluxen aurpegiak kontuan hartuta, lau posiziotan, txutxuita, zapatito, carne eta tabak, egotea lortu behar zen, beste batek, pilota botatzen zuen denbora tarte horretan.

Taco y palma. Zapata takoi bat zen jostatzeko tresna. Parte-hartzaile bakoitza zen horietako baten jabe, eta joaldi batean lagunaren takoitik esku ahur bateko distantzia baino gutxiagora uzten zuen parte-hartzaileak eskuratzen zuen kromoa.

Txapak. Lurrean ibilbide bat marrazten zen klarionarekin eta geure txapekin ibilbide horri jarraitu behar genion zorrotz. Zelofanez edo gure txirrindu lari maiteenaren aurpegiz estalitako txapari hatz luzearekin bultza eginez osatu behar genuen ibilbidea.

Txapelarekin, berriz, ahalik eta urrutien jaurtitzea genuen helburu, edo bestela, besteari atean gol sartzea.

Txiban, Tabakalera jolasten genuen, era askotara: Batzuetan, txanpon batekin lasterketak egiten genituen, txanponarekin joan etorria osatu behar genuen zuhaitzen bati bira eman arte. Bestetan lasterketa Maratoia egiten genuen, Tabakaleratik Mundaiz Villara arte joan eta etorrian, kilometroko

cazador, guardia y ladrón", mientras iba señalando de uno en uno y al penúltimo le tocaba ser guardia y al último ladrón. Así se hacían dos equipos y los guardias tenían que coger a los ladrones.

A la jardinera. Era parecido a txorro morro, pero en círculo y había que saltar sin que te atrapara un "para" que andaba alrededor.

A hablar con la pe. (Jupu gapa mospo apa hapa blarpa conpo lapa pepe).

Al hínque. Con clavos grandes o algún destornillador traído de casa, en un cuadrado de tierra en el que se iba ganando terreno. Se dividía el terreno en dos partes iguales, el primero hincaba el clavo en el terreno del otro y se hacía una raya según la dirección de la inclinación del clavo y se ganaba el terreno mayor y se volvía a tirar hasta que fallara en el intento del hínque, en cuyo caso le tocaba al otro. El juego se acababa cuando uno conseguía todo el terreno.

A las tabas. Se jugaba con tabas de corderos y había que ir consiguiendo las cuatro posiciones de la taba, es decir txutxuitas, zapatitos, carnes y tabas, mientras se tiraba una pelota al aire.

A taco y palma. Se jugaba con un tacón de zapato y lograba ganar un cromo el que conseguía de una tirada acercarse al tacón del amigo a menos de una palma de mano de distancia.



A txapas. Se hacía un recorrido en el suelo con tiza y teníamos que ir avanzando lanzando con el dedo corazón la chapa que habíamos forrado con papel de celofan o con la cara de nuestro ciclista preferido.

Con la **txapela**, a ver quien la tiraba más lejos o a lanzarla y meter gol en la portería del otro.

A la txiba, solíamos jugar en la Tabacalera, en sus distintas modalidades: carrera con una moneda de un recorrido de ida y vuelta en la que había que rodear un árbol. Una carrera maratoniana era la que

tartea baitzegoen. Txapekin egiten genuen. Txiba dantzari genuela egin behar genuen korrika, eta txapari ipurdiko bat eman. Gainerakoan, korroan jolasten genuen, honetan ere txapetan eta laukien jolasean bezalaxe erabakitzen zen parte-hartzaileen ordena. Zenbait pila egiten zen txanponekin eta korrotik txibaren bidez ateratakoak norberarentzat izaten ziren.



Hainbat modu zegoen txanponak mugiarazteko: txiba bota bezain pronto txanponei ematea, lan nekez samarra, nahiz baten batek noiz edo noiz horrelakorik ere lortu, txiba mugimenduan dagoela puntarekin jotzea ere lortzen genuen, eta azkenik txibak berak ipurdiz ematea. Txiba mugiarazteko modu desberdinak zeuden: mutil erara, neska erara eta toreatzaileen moduan. Trebeenek eskuan ere dantzazaten zuten, lurrera erortzeko aukerarik eman gabe.

Txingoan, neskak aritzen ziren, auzoko lantegiren batetik behar beste irristatzen zuen marmola eskuratuta. Lurrean hainbat lauki marrazten zituzten klarionaz, eta txingo hori laukiz lauki eraman behar zuten hanka baten gainean. Saltoka joan behar zuten eta ezin zuten lauki bat bera ere bertatik pasatu gabe utzi.

Txorro, morro, piko, tallo, ke. Bi taldek jolasten zuten. Lehen taldeko lagunak ilaran jartzen ziren, makurtuta, hanka artetik burua sartuta. Parte-hartzaileetako bat talde honi eusteko hormaren baten kontra jartzen zen. Beste taldekoek banan-banan salto egiten zuten, hankatrabarik egin gabe (makurtuta zeudenen azpira hankarik sartu gabe) eta erori gabe egin behar zuten jauzi. Errendi izanez gero, pisua ezin eutsi eta norbait lurrera eroriz gero alegia, berriz hasten ziren hasieratik. Guztiek salto ongi eginez gero, jolasaren arauak aldatzeko, makurtuta zegoen lehen parte-hartzaileari lehenbiziko salto egindakoak jauzi egiteko zein hatz aukeratu zuen asmatzea zegokion, dela txorro, dela

hacíamos desde la Tabacalera hasta la Villa de Mundaiz y vuelta, aproximadamente un Km., solía ser con chapas, por parejas y solamente se trataba de enroscar corriendo, bailar la txiba y darle "culada" a la chapa.

Al corro con monedas, se decidía el orden de participación (como el juego de los cuadros) se hacían varios montones con las monedas y las que sacaras del corro con la txiba para ti. Se podían sacar de las formas siguientes: al tirar la txiba para bailar si les dabas a las monedas, cosa harto difícil, pero que de vez en cuando solía suceder; de "puntera" mientras bailaba dándole con la punta y al final de "culada" con el cuerpo de la txiba. Había distintas formas de bailar la txiba: a lo chico, a lo chica y a lo torero y con habilidad se podía bailar en la mano sin que tocara el suelo.

A los txingos, jugaban las chicas con un trozo de mármol conseguido en alguna marmolería del barrio, que resbalara lo suficiente, pero no demasiado y hacían varios cuadros en el suelo con tiza. Tenían que avanzar el txingo con un pie a la pata coja de cuadro en cuadro, sin saltarse ninguno, mientras iban saltando.

Txorro, morro, piko, tallo, ke. Jugaban dos equipos. Los componentes del primer equipo se ponían en hilera todos agachados metiendo la cabeza debajo del culo del otro, mientras otro participante se ponía sentado en la cabecera para sostener a este grupo. Los del segundo equipo iban saltando encima de uno en uno, con cuidado de no hacer ankatraba (que era meter una pierna el que saltaba por debajo de los que estaban agachados) y tenían que saltar sin caerse. Si había errendi (no aguantar el peso y caer se al suelo) de los de abajo, el juego volvía a empezar. Si habían saltado todos bien, el segundo equipo para cambiar las tornas con el primero, el primer participante agachado debía acertar cual de los dedos había elegido el primero en saltar al que estaba sentado en la cabecera, txorro (pulgar), morro (índice), etc.

A la txotxa. Se hacía un redondel de unos 15 cm. de diámetro en el suelo cerca de alguna pared, y pegando con una moneda en la pared a una altura de unos 70 cm. si la metías en la txotxa todos tenían que darte una moneda y si la mandabas a una distancia menor de una palma de la moneda de otro participante se la ganabas.

Otros juegos: Cuatro esquinas, gallinita ciega, un dos tres carabi caraba que voy a mirar, a médicos, a

morro, etab.

Txotxa. Hormaren batetik gertu samar 15 bat cm.ko diametroan biribil bat lurrean egiten zen. Lurretik 70 cm.ra txanponarekin horma jo ondoan txotxean sartuz gero, denek eman behar zizuten txanpon bat. Norberaren txanpona besteren batenetik esku ahurra baino distantzia txikiagoan utziz gero, berriz, beste parte-hartzaile horren txanpona irabazten zenuen.

Beste jolas batzuk: Lau izkina, oilo itsua, un dos tres carabi caraba que voy a mirar, medikutara, sukaldatzera.

Tebeoak, Antifazdun gudaria, Erpurutxo, etab., guk lehenengo eskuratutako irakurgaiak aldatzen genituen lagunentzako eskailarapean.

Parkean txabolak egiten genituen eta bertan gordetzen genituen gure altxorak, txuloren bat egin eta koloretako kristalen batekin estalita. Ongi aukeratutako makilekin egindako ezpatak lagun, ezpatari bilakaten ginen. Gaztaina garaian, berriz, gaztainak elkarri tiraka ibiltzen ginen. Ibaira bideko belardian dauden kobetara zuziak piztuta sartzen ginen eta zuhaitzetara ere igotzen ginen. Kainaberekin zerbatanak egin eta txilibitak jaurtitzen genituen.

Sagarrondoetako sagarrak ere lapurtzen genituen, tiragomekin faroletako kristalak hautsi, portaletako txirrinak jo, ateetako eskutokiak sokaz lotu edo ate gainean urez betetako baldeak jarri, txirrina jo eta korrika ihes egin, betiere aziorik azio.

Ondoen pasatzen ari ginenean iristen zen etxera joateko ordua, edo bestela, ezkutaketetan gelditzen zenak inor aurkitu ezinean etsita, etxera alde egiten zuenean. Ez ginen berehala konturatzen ezkutalekuan bakarrik utzi gintuenik, eta orduan, ezinbestean, etxerako bidea hartu behar!

Koskortu ahala, futbola hasi zen umetako jolasak ordezkatzeko, baita frontoia eta "Juven"eko, frantziskanoen parrokiako, pin-pona ere.

Pilotan asko ibiltzen ginen. Frontoia ez ezik, edozein horma ere, nahiz eta oso itxuran ez egon, nahikoa zen "barrene" edo pilotan aritzeko. Guk geuk egiten genituen pilotak, hari, kixki eta kortxoarekin.

Zuhaiztin eta Ramon Mujikaren fabrikaren ondoan, Atotxako pasealekuan, jokatzen genituen futbol partidak, betiere udaltzainek uzten zigutenean. Eskolan eta hilerrirako igoerako lurretan ere aritzen giren baloiarekin jo eta su. Tabakaleraren parean, berriz, erdiratu eta buruz golak sartzen aritzen ginen. Bestela, berriz, bikoteka jarri eta baloia behin

cocinitas.



Cambiábamos los **tebeos** de El Guerrero del Antifaz, Pulgarcito, etc., que fueron nuestras primeras lecturas, en las escaleras de las casas de los amigos.

En el **parque** construíamos cabañas donde nos escondíamos y guardábamos tesoros en algún txulo tapándolo con algún cristal de colores. Nos convertíamos en grandes espadachines con las espadas hechas con palos debidamente escogidos. En tiempos de castañas andábamos a castañazo limpio. Hacíamos incursiones con teas encendidas a las cuevas que están en la bajada de la pradera hacia el río. Nos subíamos a los árboles. Hacíamos cerbatanas con cañas y tirábamos txilibitas.

También íbamos a mangar manzanas a las huertas, utilizábamos los tiragomas para destrozar cristales de las farolas, tocábamos los timbres de los portales, atábamos los pomos de dos puertas con cuerdas o poníamos botes con agua inclinados en las puertas, tocábamos el timbre y salíamos corriendo.

Y teníamos que ir a casa cuando mejor nos los estábamos pasando o cuando jugando al escondite el "para", no consiguiendo encontrar a nadie, aburrido se iba para casa y nos dejaba plantados en el escondite hasta que nos dábamos cuenta.

Según íbamos creciendo, fuimos dejando los juegos de niños por el fútbol, el frontón o el pin-pon de la "Juven", un centro parroquial de los franciscanos.

Jugábamos mucho a **pelota**. Aparte del frontón, cualquier pared, por desigual que estuviera, era buena para jugar partidos de pelota o a "barrene". Nosotros mismos hacíamos las pelotas con lana y quisqui o corcho.

Jugábamos partidos de fútbol en el paseo de Atotxa junto a la fábrica de Ramón Mugica y en Zuhaizti, cuando nos dejaban los guardias municipales, en el cole o en las tierras falsas de la Subida al Cementerio. Frente a la Tabacalera jugábamos con el balón "a centrar" y meter gol de cabeza; o "a tocar una vez", por parejas y haciendo las porterías entre

bakarrik jotzera. Atearen zutoinetarako zuhaitz eta burdinesiz baliatzen ginen.

Zelaiak eraikinez josi dira, ordea, kaleak autoz eta geroz eta haur gutxiago ikusten da. Oro har, txibak eta soka, oroimenaren ganbaran ahantzi ditugu.

los árboles y la verja.

Las campos se llenaron de edificios, las calles se poblaron de coches y se vaciaron de niños. Las txibas y la cuerda quedaron olvidados en el recuerdo.

ERAKUNDE, ELKARTE ENTITATEEN ZERRENDA

KULTUR ARLOA

- ZAI ZOI Koordinadora
- Egiako AEK Euskaltegia
- Porrontxo Jaiak
- Trebeska Elkarte
- Kriseilu-Bagera Euskara Taldea

GASTRONOMIA

- Arrano Elkarte
- Ur-Zaleak Elkarte
- Donosti-Gain Elkarte

GIZARTE ARLOA

- Atotxa-Egiako zahar-etxeko Egiatarra Elkarte
- Txoko Berriko Jubilatatu eta Pentsiodunen elkarte

EMAKUMEA

- Familia eta Gizarte Heziketarako zentroa
- Jadanik Emakume Taldea

GAZTERIA

- Gazte Asanblea
- Ttan Ttakun Elkarte

GIZARTEA

- Hirigintzako Koordinadora
- Senideak

AISIALDIA ETA HEZKUNTZA

- Antxeta Atsedendaldi Elkarte
- Egiako Gazte Lokala
- Denok Elkarte
- Atotxako Gazte Elkarte

KIROL ARLOA

- Kostkas
- Egiako eskubalo taldea
- Aitzarte Mendi Elkarte
- Xabier Mendi Elkarte

ETA RELACION DE ORGANISMOS, ASOCIACIONES, ENTIDADES

AREA DE CULTURA

- ZAI ZOI Koordinadora
- Egiako AEK Euskaltegia
- Porrontxo Jaiak
- Trebeska Elkarte
- Kriseilu-Bagera Euskara Taldea

CULTURA GASTRONÓMICA

- Arrano Elkarte
- Ur-Zaleak Elkarte
- Donosti-Gain Elkarte

AREA SOCIAL

- Egiatarra Asociación de la Casa de Jubilados de Atotxa-Egia
- Asociación de Jubilados y Pensionistas de Txoko Berri

MUJER

- Centro para la Familia y la Educación Social
- Jadanik Emakume Taldea

JUVENTUD

- Gazte Asanblada
- Ttan Ttakun Elkarte

SOCIEDAD

- Urbanismoko Koordinadora
- Senideak

TIEMPO LIBRE Y EDUCACIÓN

- Antxeta Atsedendaldi Elkarte
- Egiako Gazte Lokala
- Denok Elkarte
- Atotxako Gazte Elkarte

AREA DE DEPORTES

- Kostkas
- Balonmano de Egia
- Aitzarte Mendi Elkarte
- Xabier Mendi Elkarte

EGIAKO PASADIZOAK

Atal honetan auzoko hainbat bizilagunek bizitako pasadizoak bildu dira. Beren kontakizun interesgarri hauek garai hartako errealitatea hurbiltzen digute, eta hain urrun ez dagoen sasoi hartatik gaur egungo girora arteko tarte motzean gertatutako aldaketa handien berri izateko parada ematen digu.

Korea eta Baztan auzo txikietako biztanleen ekarriak, sagardotegien mundua, ikazkinena, kontu ugari dira tartean.

Neronen bizipenak kontatzeari ekingo diot.

JOSEAN

Nire umetako bizipenak gerraostekoak dira, 1939an jaioa izaki. Gosea, pobrezia, errazionamendu-liburuxka eta estraperloa. Futbol zelaiaren parean jaio banintzen ere, S letran hain zuzen, egungo 35. zenbakian, berehala joan ginen Tejeriaren parera bizitzera. Ordukoak ditut oroitzapenik zaharrenak.

Jarraian aipatuko ditudan pasarterik gehienak 1945 eta 1955 urte artean gertatutakoak dira. Kontakizun hauetan apenas ageri dira nesken bizipenak. Neska eta mutilen arteko harremana hutsala izaki, ez genuen elkarren berri. Datozen orrialdeetan hutsune hau betetzeko emakumeren baten iritzia agertzen da.

Tejerian biltzen ginen inguruko neska-mutilak jolas egiteko. Teilen fabrika itxi egin zuten, eta horren orde txatartegi bat zegoen, baina hala ere, tximiniak bertan jarraitzen zuen eta Tejeria deitzen zitzaion oraindik ere. Alde batean lehengo fabrika zaharra zegoen, eta bestean, Faustino Sagardotegia. Urrutian, mendia. Sugandilak harrapatu nahian ibiltzen ginen, isatsa moztu eta bertan uzten genituen, mugimendu arraro batean murgilduta, isatsik gabe. Gaiekin, adarren batetik ebakitako makilekin, tiragomak egiten genituen, eta kobrea eta beste hainbat metal ere biltzen genituen txatartegira eramateko. Horrela, tebeo edo kromoak erosteko diru pixka bat lortzen genuen.

Trafikorik ia ez zegoenez, **jolasik gehienak kalean** bertan egiten genituen. Orduan ez genuen espresuki frontoirik behar esku pilotan edo barrene jokoan aritzeko, nahikoa genuen edozein hormarekin eta. Hormak nonahi ziren. Tejeriako eraikinean bazen bat erabat irregularra, Egia 22 parean. Monjen ikastetxeko atean ere bazen antzeko bat, kroskaz betea, Egia 32 parean. Egia 24 eta 26 artean

ANECDOTAS EGIATARRAS

En este capítulo se recogen las vivencias que han pasado algunos vecinos y vecinas del barrio, con sus interesantes anécdotas que nos acercan a la realidad que se vivía en aquellos tiempos no tan lejanos y nos permite percibir los grandes cambios habidos en un corto plazo de nuestra historia más cercana.

Hay aportaciones de vecinos de los pequeños barrios que formaban Korea y Baztán, del mundo de las sidrerías, las carbonerías, etc.

Empezaré contando mis propias vivencias.

JOSEAN

Habiendo nacido en 1939, mis primeros recuerdos de la niñez son los de la posguerra, el hambre, la pobreza, la cartilla de racionamiento y el estraperlo. Aunque nací enfrente del campo de fútbol, en la letra S, hoy nº 35, enseguida pasamos a vivir frente a la Tejería y de ahí me vienen los recuerdos más lejanos. La mayor parte de estos comentarios ocurren entre los años 1945 y 1955. En estos relatos no aparece apenas las vivencias de las chicas por desconocimiento, ya que era normal el distanciamiento entre unos y otras, espero que en otras páginas aparecerá la opinión de alguna mujer para salvar este aspecto.

La tejería era el lugar donde solíamos jugar las y los niños de la zona. La fábrica de tejas se había cerrado, en su lugar había una chatarrería, pero todavía estaba la chimenea y se le seguía llamando tejería. A un lado estaba la antigua fábrica, al otro el local de la Sidrería Faustino y al fondo, el monte. Solíamos atrapar lagartijas, les cortábamos la cola y las dejábamos con su movimiento extraño de su cuerpo sin cola. Hacíamos tiragomas con “gais”, palos cortados de alguna rama y también solíamos recoger cobre y otros metales que llevábamos a la chatarrería para sacar unos dineros para tebeos o cromos.

Como apenas había tráfico, muchos de los **juegos se hacían en plena calle**. Entonces no se necesitaba un frontón para jugar a pelota a mano, cualquier pared servía para jugar partidos de pelota o a barrenen. Había una pared totalmente irregular en el edificio de la tejería, frente a Egia 22. Otra parecida en la puerta del Colegio de las Monjas, enfrente de Egia 32. También la pared estrecha que sobresale entre Egia 24 y 26 hacía de frontis. Al atardecer en plena carretera entre Martín Santos y el Colegio de las

nabarmetzen den horma estua ere frontisetarako erabiltzen genuen. Ilunabarrean, Martin Santos eta Monjen ikastetxearen arteko errepide bete-betea, aldapan, partidak jokatzen genituen. Noizbehinka, Loiolako koartelera zihoan autoren bat, kamioiren bat edo zaldi-gurdiren bat zela medio, jokatzeari utzi behar izaten genion.

Zaldi-gurdietan esertzen ginen askotan, eta gurdigidariak zaldiak geratzeko keinu egiten zuela jabetzen zenean ustarekin uxatzen gintuen oihu batean. Kamioietara ere igotzen ginen, esaterako, Egia 32ko biltegirako pentsua ekartzen zuenera, eta handik algarrobo-lekak hartzen genituen jateko. Bertako denda, taberna eta bizilagun batzuentzat izotz blokeak ekartzen zituen kamioia ere hemendik pasatzen zen. Langileek pika bat erabiltzen zuten izotz bloke hauek mugitzeko eta puskatzen ziren zatiak amorratzen hartzen genituen, izozkia bailiran miazkatzeko.

1947ko irailaren 18an nire amak Tejeriara joateko agindu zidan, baina nik gertuko portale batean lagunekin futboleant jokatzen geratzea nahiago izan nuen. Izan ere, orduan zenbait portaletan futboleant jokatzen uzten zieten haurrei eta horretarako aproposenak, lekuz ere bai, zabalenak baitziren, Egia 14 eta 18koak ziren. Egun horretan bertan auzotarrak erabat hunkitu zituen ezbehar triste bat jazo zen. Tejerian karburo pote baten leherketaren eraginez, hamaika urteko mutil bat hil zen, **Karmelo Iraola**, Egia kaleko 14 zenbakian bizi ziren Iraola familia ezagunaren semea. Oraindik gogoan dut Karmeloren amak izan zuen urduritasun atakea. Pentsa, mingainari kozka egin ez ziezaion, giltza bat sartu zioten ahoan. Nik garai hartan ez nuen horren arazoirik ulertzen. Nire ama etxean zegoen eta leherketa entzun zuenean, hiltzeko moduko sustoa hartu zuen, bai baitzekien nik han behar nuela izan. Hildako asko izan zirela entzun zuen eta korrika batean jaitsi zituen eskailerak, baina ez ninduen han aurkitu, portale batean baizik, lasai ederrean futboleant jokatzen.

Urte batzuk geroaro ere bereziki kupitu ninduen beste zoritxar bat gertatu zen. 1950eko abuztuaren 5ean, **Jose Luis Azparren**, 14 urteko mutil koskorra, taldeburu izateko jaioa, Amarako zirkuituko azken moto karrera ikustera joan zen Txomin Irure, Nardo Ruiz de Azua, Juantxin Bigera eta beste batzuekin. Burdinazko zubitik gertu trenbidea pasatzen ari zela tren batek harrapatu zuen azpian eta bertan hil zen. Beste lagun bat eta ni neroni bere bizilekura, Mandasko Dukearen pasealekuko 7 zenbakira, hurbildu ginen,

Monjas, en cuesta, solíamos jugar partidos de fútbol. De vez en cuando teníamos que parar el juego para que pasase algún auto, camión o coche de caballos que solían ir al cuartel de Loiola.

Hacíamos montadilla en los coches de caballos y el cochero al notar que el caballo frenaba nos gritaba y nos daba con la fusta. También nos montábamos en camiones, por ejemplo en el que traía piensos al almacén de Egia 32 y solíamos coger algarrobas para comerlas. Otro camión era el que venía con bloques de hielo para venderlos por las tiendas, los bares y a algunos vecinos que bajaban en su busca para meterlos en la "nevera". El trabajador utilizaba una pica para mover estos bloques y los trozos que se rompían los cogíamos y los chupábamos como si fuera un helado.

El 18 de Setiembre de 1947, mi ama me había mandado ir a la Tejería y yo "obediente" me había quedado jugando a fútbol con mis amigos en un portal cercano, porque entonces había algunos portales que dejaban jugar al fútbol a los niños y los de Egia 14 y 18 eran los más anchos y adecuados para ello. Ese día pasó un acontecimiento que conmocionó al vecindario. Había habido una explosión de un bote de carburo en la Tejería y había muerto **Carmelo Iraola**, un niño de once años de la popular familia Iraola, que vivía en Egia 14. Todavía recuerdo el ataque de histeria que le dio a la madre de Carmelo, vi cómo le metían una llave en la boca para que no se mordiera la lengua, algo que no entendía con tan corta edad. Mi ama en casa se llevó un susto tremendo al oír la explosión y los comentarios de que había muchos muertos, bajo corriendo las escaleras pensando que yo estaba en la tejería y me encontró todo feliz jugando a fútbol en un portal.

Unos años después también pasó otro triste acontecimiento que me conmovió personalmente. El 5 de Agosto de 1950 **José Luis Azparren** un chaval de 14 años que tenía carisma de líder, había ido a ver la última carrera de motos que se hizo en el circuito de Amara con sus amigos Txomin Irure, Nardo Ruiz de Azua, Juantxin Bigera... y al pasar las vías del ferrocarril cerca del puente de hierro, un tren que pasaba en ese momento lo había pillado y lo había matado. Otro amigo y yo pasamos por su domicilio de Duque de Mandas 7, ahora nº 47, era el primer cadáver que veíamos. No era muy común el que unos niños visitaran a los fallecidos y sus padres nos preguntaron si éramos sus amigos.

Las primeras lecturas fueron los **tebeos** de El

egun 47 dena, eta bertan ikusi genuen nire bizitzako lehen hilotza. Haurrek hildakoak bisitatzea ez zen oso arrunta eta bere gurasoek ea bere lagunak ginen galdetu ziguten.

Tebeoak irakurtzea ere gustatzen zitzaigun eta irakurri genituen lehenak Antifazdun gudaria, Roberto Alcazar eta Pedrin, Gizon mozorrotua, Printze ausarta, Gerra balentriak... ziren. Barre egitekoak ere baziren tartean, Erpurutxo, TBO eta maitagarriak protagonista zituztenak ere bai, mutilon ustez, neskentzat zirenak. Irakurri ondoan, lagunen artean trukea egiten genuen.

Egia esan, **udarak lapurtzen** gozatzen genuen gehien. Mundaiz Villaren baratsetara, parkeko zelaitik barrena iristen zen Urumea bazterreko Martin Santosa, Frantziskotarretara, Monjetara, Tolabe baserriko pikuak lapurtzera... joaten ginen, besteak beste. Lapurtzen genituen fruituak sarri heldugabeak izaten ziren, baina hala ere, munduko gozoenak iruditzen zitzaizkigun guri. Edozein mutilek estimatua izan zedin gisa honetako esperientziaren bat bizi behar zuen, eta abentura ikaragarria izaten zen beti. Askotan salto egin behar izaten genuen zuhaitzetatik zakurren bat atzetik genuelako edo zaunka hotsek beldurtuta. Behin Martin Santosko baratzean bertako baserriarrak jarraitu zigun atzetik eta korrika motelen egiten nuelako edo, harrapatu egin ninduen. Ipurtzuloan ostikada bat eman zidan eta segituan libre utzi ninduen. Hura bai ustekabea!

Neskak eta mutilak ez ginen sekula elkartzen, eta mutilak batetik eta neskak bestetik, geure kasa ibiltzen ginen. Neskak sokasaltoan edo txingoan ibiltzen ziren, eta mutilak, berriz, futbolearen edo txibarekin jolasean. Eskola desberdinetara joaten ginen, sekula ere ez elkarrekin. Neska eta mutilen arteko hartu-emanak gaizki ikusiak zeuden. Gazte denborako lehenengo urteetan ere ausartenek baino ez zioten horrelako harreman bati ekiten. Edozein amodio adierazpen ezkutuan egiten zen, zaharrenek erabat arbuiatu eta kritikatzeko baitzituzten neska-mutilen harremanak eta elizak berak ere pekatutzat jotzen zituen.

Politikan **errepresioa** gogor nagusitzen zen, eta gutxitan hitz egiten zen hurbileko gerraren historiaz, eta norbait hasiz gero, berehala eteten ziren gai honen inguruko elkarrizketak, besteri burua ez berotzeko argudiatur. Euskara oso gutxi entzuten zen.

Guerrero del Antifaz, Roberto Alcázar y Pedrín, El Hombre Enmascarado, El Príncipe Valiente, Hazañas Bélicas... También estaban los de risa, Pulgarcito, TBO o los de chicas que eran los de hadas, así los llamábamos los chicos. Una vez leídos solíamos hacer cambios de tebeos con otros chavales.

Uno de los planes preferidos era el de ir a **robar peras**. Solíamos ir a las huertas de la villa de Mundaiz, Martín Santos, la que estaba en la orilla del Urumea y se bajaba desde la pradera del parque, los Franciscanos, las Monjas, los higos del caserío Tolabe... Las frutas que robábamos, a pesar de estar verdes en muchas ocasiones, nos sabían las más sabrosas del mundo. Todo chico que se preciara tenía que pasar por esta experiencia, era toda una aventura. Eran muchas las veces que teníamos que saltar desde los árboles porque nos seguía algún perro o solamente oíamos sus ladridos. Y en una ocasión en la huerta de Martín Santos nos siguió el casero, se quedó corriendo detrás de mí, seguramente sería porque yo era el que menos corría, me atrapó me dio una patada en el culo y me dejó. ¡Vaya susto que me llevé!

Las chicas y los chicos andábamos cada uno por su lado y no había un lugar de encuentro. Las chicas jugaban a la cuerda o a chingos y los chicos a fútbol o a la chiva. Íbamos a escuelas distintas, nunca mezclados. Cualquier relación de algún chico en grupos de chicas o al revés era mal visto por los demás. Incluso en los primeros años de la juventud sólo eran los más audaces los que conseguían una relación con el otro género. Cualquier manifestación amorosa se realizaba a escondidas, por ser totalmente rechazada y criticada por las personas mayores y considerada como pecaminosa por la iglesia.

La represión política era muy fuerte, en muy rara vez se hablaba de la historia reciente de la guerra y cuando se empezaba siempre había alguien que decía que no había que calentar las cabezas. Pocas veces se oía hablar en euskera.

Como no estaba permitido jugar a fútbol o pelota porque pisaban la hierba, algunas veces eran perseguidos y multados por el guardamontes Patxi, pero como a pesar de todo seguían jugando, al final les tenía que dejar por imposible. También estaba el barrendero Santiago que mantenía el barrio muy limpio, al que le solían hacer verdaderas diabluras, unos días le escondían la pala, otros el cesto, pero era un hombre muy paciente que aguantaba las travesuras de muy buen grado.

La víspera de San Juan solía ser un día mágico. Desde días antes se iba preparando la hoguera con ramas cortadas de los árboles con hachas y maderas traídas de los alrededores. Esa noche se saltaba la hoguera, se comían patatas asadas sentados en piedras traídas de Mármoles Altuna y las chicas y chicos tenían permiso para divertirse hasta altas horas de la madrugada, cosa no habitual en aquellos tiempos.



En Navidades, –nos cuenta Ana Maria–, solía surgir también un ambiente inmejorable entre todo el vecindario, se juntaban en su casa durante un par de horas con otros vecinos, luego iban a la casa de los de Salvatierra, a donde Guadalupe la Pescadora, o a casa de la Narcisa y con toda confianza pasaban unos momentos muy agradables. En esos días los niños y niñas no tenían hora fija para ir a casa y disfrutaban mucho y todo ello sin bebidas, porque eso no se lo permitían sus padres.

En una ocasión, - recuerda Ana - había un concurso en Radio San Sebastián en el que había que presentarse en un cuarto de hora en la radio para conseguir un regalo y citaron el nombre de María, la de Larruskain, vecina del barrio. Salieron a la vez de

lehiaketa batean. Ordu laurden baten buruan joan behar zuen irratira saria jasotzeko eta hainbat etxetako haurrak batera atera ziren Mariari honen berri ematera. Lauzpabost lagunek jaitsi zuten Aldakonea aldapa korrika batean irratira arte. Irratikoek ezusteko galanta hartu zuten hainbeste jende ikustean. Izan ere, saria jaso behar zuena ez ezik, gainerakoak ere laguntzera joan ziren. Egia esan, horrelako lagunartea zegoen orduan auzoan.

Bere ama, Marina la Cadenas anderea, pertsona zoragarria zen, nortasun handikoa eta neska-mutil guztiek begiko zutena. Etxean bost anaia-arreba ziren eta abuztuaren 15 batean 18 urteko anaia hil zitzaion Ana Mariari Epeleko urtegian itota. Urtegia hustu behar izan zuten bere gorpua aurkitzeko. Bere ama, Marina, ezbeharraren jakinaren ganean, erabat lurjota, Manuel Enean bizi zen bere beste seme batengana joan zen. Izan ere, seme hau portuko uretan ibiltzen zen txanponak eskatuz eta anaia urtegitik atera zezakeela iruditu zitzaion ama gajoari.

Urte haietan, beste leku askotan bezalaxe, miseria gorriko uneak bizi izan ziren. Anak gogoan du oso gazterik portura joaten zela antxo batzuk edo beste arrain klaseren bat etxera ekartzeko asmoz. Erabat harro iristen zen etxera arraina aldean hartuta, etxekoei laguntzea nahi baitzuen, larritasunak larritasun.

Oso gazterik hasi zen lanean Tabakaleran, 16 urte zituela, eta hogeita hemeretzi urte eman ditu bertan. Ez da esne-mamitan bizi izandakoa, baina ondo asko jakin du bizia duintasunez aurrera ateratzen. Ez du sekula bere iragana ukatu, alderantziz baizik.



1952-53 inguruan festa batzuk egin zirela ere ekarri

varias casas para avisarle y fueron corriendo un grupo de cuatro o cinco bajando por la cuesta de Aldakonea, sin parar hasta la radio, en medio de la sorpresa de los de la radio al ver aparecer a tanta gente. Aparte de la persona premiada, los demás habían acudido como si fuera uno más de la familia. Ese era el ambiente que se respiraba entre el vecindario.

Su madre la señora Marina la Cadenas, era una persona extraordinaria, de carácter, muy querida por toda la chavalería. En casa eran cinco hermanos y un 15 de Agosto se le murió uno de ellos de 18 años, ahogado en la presa de Epeleko, tuvieron que vaciar media presa para encontrarlo. Su madre Marina, al enterarse de la noticia fue a donde un hijo que vivía en Manuel Enea, -que tenía costumbre de ir al muelle a bañarse y pedir "perrita al agua"-, a ver si podía ayudar a sacar a su hermano de la presa, tal era su desesperación en aquel momento.

En aquellos años, como en otras partes, allí también se pasaban momentos de verdadera necesidad. Ana recuerda que de muy jovencita algunas veces solía ir ella al muelle, donde conseguía algunas anchoas o algo de pescado que traía a casa, toda orgullosa para echar una mano a la deteriorada economía de su familia.

Empezó muy joven a trabajar y con 16 años entró en la Tabacalera, lugar donde ha trabajado durante treinta y nueve años. Su vida no ha sido precisamente un paraíso de rosas, pero ha sabido hacer frente a la vida dignamente, no es de esas personas que reniega de su pasado, sino todo lo contrario.

También recuerda que hacia 1952-53 se hicieron unas fiestas en el barrio, a todo lo alto, con guñol, payasos, etc, que por desgracia no duraron mucho tiempo. Hasta que en la década de los ochenta, gracias al impulso que impusieron "El bigotes", "El Txino", etc., volvieron a resurgir con un gran ambiente y colaboración de buena parte del vecindario, todavía se puede recordar a su hermano Joseluis Torre, "Kotxelui" con el micrófono en la mano animando las fiestas, a Bernardo Tejada "El Txino" trabajando sin parar y quedándose de guardia toda la noche en la txozna para evitar el saqueo por parte de desconocidos. Ana recuerda que un año, después de que en la txozna se habían provisto de todo tipo de bebidas y material para bocadillos, estuvo lloviendo a raudales durante días, formándose charcos por toda la plaza, con el riesgo de tener que quedarse con todo el material y producirse pérdidas en las fiestas, que todos los años conseguían mantener con un pequeño superávit. Cuando ya veían que tendrían que buscar alguna

du gogora. Pailazoak, txotxongiloak... Sekulako festak izan omen ziren, baina zoritxarrez, ez omen zuten asko iraun. Ondoren, 1980ko hamarkadan, bizilagunen lanari esker, berriz antolatu zituzten festa hauek eta giro bikaina sortu zen. Beste batzuen artean, "Bigotes"ek, "Txino"k, lan handia egin zuten. Ana Maria beraren anaia den Jose Luis Torre, "Kotxelui", mikrofonoa hartu eta festak girotzen aritzen zen, eta Bernardo Tejada, "Txino", berriz, lanean buru-belarri. Gau osoan geratzen zen txosnan ezezagunen batek ezer lapur ez zezan.

Urteren batean, Anak gogoan duenez, txosna edariz eta otartekoak egiteko beharrezko osagaiz bete ondoan, hainbat egunetan euria erruz egin omen zuen goian behean, eta plazan sekulako putzuzuloak sortu omen ziren. Urtero etekinak lortzen bazituzten ere, festetan galerak izateko arrisku bizian izan ziren ordukoan. Egoera hura gaintzeko prestamoren bat eskatu beharko zutela pentsatu zuten. Igandean, ordea, festetako azken egunean, eguzkia izan zen nagusi, giro bikaina egin zuen, eta auzotar guztiak murgildu ziren festetan. Etxe guztietan prestatu zituzten kroketa, tortilla eta beste hainbat "pintxo" txosnarako. Gero berek prestatutako guztia saldu zuten, eta azkenean, urte hartan atera zen diru gehien txosnan.

Denbora joan ahala, auzoko giroa bera ere aldatu egin da, ez da lehengoa, jakina. Dena den, 2000. urtean 50. urteurrena gogora ekarriz egindako festan garai bateko familia giroko harremanaren aztarnak geratzen direla argi geratu zen, eta 250 lagun bildu zituen afaria sekulakoa izan zen. Bertan zeuden zenbait lagun kanpotik etorri ziren, lehengo pasadizoak eta harremanak gogora ekartzeko. Ekitaldi honen aurretik, auzoko helduei egin zitzairen omenaldia eta Egiako Kultur Etxean ikusgai jarritako antzinako argazkien erakusketa ere antolatu zituzten, hau guztia, giro ezin hobean. Urtetan bizilagunen artean izandako harreman bero hori da Ana Mariak duen oroimenik politena. Batez ere telebista, igogailu, trafikiko, errepide eta gainerako aurrerakuntzek bakarti jokatzera garamatzaten aldi honetan.

2.5.2001

fórmula para solventar la situación económica pidiendo algún préstamo, el domingo, último día de fiestas salió un sol espléndido y todo el barrio se volcó, en todas las casas se fueron preparando "pintxos" de croquetas, tortillas, etc. para llevar a la txozna y luego se fueron a consumir todo lo que habían preparado ellos mismos, al final ese año fue el que hubo una mayor recaudación en la txozna.



Con el tiempo ha ido cambiando el ambiente del barrio, ya no es lo que era antes, pero incluso en el año 2000 cuando hicieron la fiesta de la Conmemoración del Cincuenta Aniversario se dieron cuenta que todavía permanecía algo de aquella relación tan familiar, había sido impresionante la cena popular que reunió a más de 250 comensales, algunos de ellos venidos de fuera, para recordar la historia tan rica en anécdotas que habían pasado juntos. Antes se había celebrado un homenaje a los mayores y así mismo habían organizado una muestra de fotos antiguas en el Centro Cultural Egia. Todo en un ambiente inigualable.

Precisamente el tipo de relación tan entrañable que han mantenido en el vecindario durante tantos años, es el recuerdo más agradable que le viene a la memoria a Ana María. Sobre todo teniendo en cuenta estos momentos en los que la televisión, los ascensores, el tráfico, las carreteras, etc. nos llevan hacia posturas individualistas.

2.5.2001

Mikeli Gastesi eta Maritxu Malaxetxeberria. Baztan auzoa.



Egian bertan, Baztanek nortasun jakina zuen, historia jakineko auzunea baitzen. 1955ean eraiki zituen etxebizitza hauek Oskozek Egia gainean, Karmengo Andre Mariaren kalearen, Aldakonearen eta

San Frantzisko Xabierko etxeen artean.

Mikeli eta Maritxuk beren lehen urteetatik 1980ra arteko pasarteak dakarzkigute gogora.

Maritxu Ipazterren (Bizkaia) jaio zen 1932an eta Mikeli Gorritin (Nafarroa), 1935ean. Biak ala biak ziren baserri girokoak, eta eza eta gerraosteko une latzak ezagutu zituzten, errazionamendu-liburuxka eta estraperloa kasu.

1955ean Babes Ofizialekoak ziren Baztango etxebizitzetara aldatu ziren, 20 urtetan ordaintzeko asmoz. Maritxuren esanetan, goiko etxebizitzetan – bera 5. pisuan bizi zen- zenbait hilabetetan urik gabe egon ziren egunez, hartunea ez baitzegoen behar bezala jarrita. Ura gauetan bakarrik izaten zuten eta orduan aprobetxatu behar izaten zuten arropa garbitu, harrikoa egin eta hurrengo eguneko zereginetarako, garbiketarako eta sukaldatzeko, nahikoa ur hartzeko. Horretarako, bainuontzia eta hainbat balde betetzen zituzten urez. Arropa eskuz garbitzen zuten, garbigailurik ez baitzegoen. Beraz, lisiba egin behar zutenez, gauean ez zuten atsedean handirik hartzen. Hasieran, etxebizitzetan argirik ere ez zegoen. Oinezkoentzako espaloiak ere urbanizatu gabe zeuden eta inguru hau behar bezala egokitu zezaten, Udalera bisita asko egin behar izan ziren.

Baztan auzunea mendiz inguraturik zegoen. Latxaga baserria, Leon Enea, Altuna Marmolak, eta udaletxeko etxebizitzak baino ez zeuden inguruan. Eraikin hauekin batera hasi ziren Iruesoroko eremua urbanizatzen.

Mikeli Periko Alduntzinekin ezkondu zen eta Goierriko herri batetik ekarritako esnea partituz ateratzen zuten bizimodua. Iruesorotik hasi eta Aldakoneara arte esnea marmitatan zutela joaten ziren etxez etxe txirrina joz. Eskailera igo eta emakumeak beren marmita edo kazolarekin ateratzen ziren. Litro erdia eta litro laurdena neurtzen zituen burduntzaliarekin betetzen zizkieten esne-ontziak. Mikelik gogorarazi duenez, 1955eko neguan sekulako hotza egin zuen eta izotzak denbora askoan iraun zuen. Ahizpa eta biak

Mikeli Gastesi y Maritxu Malaxetxeberria. Barrio del Baztan.-



Dentro de Egia, el Baztan constituyó desde un principio una barriada específica, con su propia historia. Fue en el año 1955 cuando Osoz construyó estas viviendas en el alto de Egia, entre la calle Virgen del Carmen, Aldakonea y las casas de San Francisco Javier.

Mikeli y Maritxu nos cuentan sus recuerdos de cómo se vivieron los primeros años en este lugar hasta 1980 aproximadamente.

Maritxu había nacido en el año 1932 en Ispaster (Bizkaia) y Mikeli en 1935 en Gorriti (Nafarroa). Las dos habían vivido en el mundo del caserío y habían pasado las escaseces y los momentos difíciles de la posguerra, los tiempos de la cartilla de racionamiento y el estraperlo.

En 1955 vinieron a estrenar las viviendas de Baztan que eran de Protección Oficial, a pagar en 20 años. Al entrar en ellas, según nos cuenta Maritxu, los pisos altos – ella vivía en un 5º piso - tuvieron que aguantar unos meses sin agua durante el día porque no estaba acondicionada adecuadamente la acometida, solamente llegaba durante las noches, momento que había que aprovechar para hacer la colada, fregar los cacharros y aprovisionarse de agua llenando la bañera y cubos para utilizarla durante el día en limpieza, para guisar, etc. La colada se hacía a mano, ya que entonces no había lavadora. Todo eso a costa de pasar las noches con pocas horas de descanso en la cama. Al principio ni siquiera había luz en las viviendas. Las aceras estaban sin urbanizar. Hubo que hacer muchas visitas al Ayuntamiento para que urbanizaran la zona.

La barriada de Baztan estaba rodeada de monte, teniendo cerca solamente el caserío de Latxaga, Leon Enea, Mármoles Altuna y las casas del Ayuntamiento. Al mismo tiempo que estas viviendas se fue construyendo la zona de Iruesorro.

Mikeli se había casado con Periko Alduntzin y para sacar la familia adelante traían leche de un pueblo del Goierri, dedicándose a su venta repartiéndola desde Iruesorro hasta Aldakonea de casa en casa llevándola en marmitas, llamaban a los timbres, subían las escaleras, las mujeres salían con su propia

Aldakonean esne partitzen ari ziren batean, irristatu eta hankaz gora erori ziren esne eta guzti. Hantxe galdu zitzairen esnea alferrik. Geroago, ikaztegi bat ireki zuten. Pasaiatik ekartzen zuten kamioikada ikatz, bertan deskargatu eta 30 kg.ko zakutan sartzen zuten saltzeko. Garai hartan ikatza etxeko sukalde guztietan erabiltzen zen eta sukalde gaina pizturik edukitzen zen berogailu funtzioa egin zezan. Sukaldeko suan zegoen ur-depositua nahikoa berotzean, harraskan ur beroa ateratzen zen. Honen ondoren, Egian izotz barrak saltzen hasi ziren, batik bat udan. Kamioneta batean eramaten zituzten eta gako batekin mugitzen zituzten barraok. Puskatan egiteko, aizkora erabiltzen zuten. Hozkailurik ez zegoenez, emakumeek etxetara eraman eta balde batean sartzen zituzten izozkailu bezala erabiltzeko. Mikelik eta Pedrok zazpi seme-alaba izan zituzten. Maritxu ere ezkondu zen, eta seme eta alaba bat izan zituen. Gizonak denboraldi luze bat eman zuen gaixo, eta, azkenean, alargun geratu zen. Gogotik lan egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko.



Garai hartan, neska-mutilak kalean ibiltzen ziren jolasean. Mutilak Tolaregoiako belardian futboleak jokatzen zuten, bestela berriz, Latxagako zubira joan eta Koreakoen kontra benetako guduak egiten zituzten. Neskak lasaiagoak ziren, oro har. Baztango plazan, Betelu tabernaren ondoan, sokasaltoan ematen zuten makina bat ordu. Mutil koskorak plaza txiki horretan bertan futboleak jolasten hasiz gero, ordea, bertan patxada ederrean eserita zeuden aitona-amonek beste norabait joan behar izaten zuten, baloiak muturrean jo ez zitezaien.

1970. urte inguruan, iraileko azken astean, hau da Sanmigeletan, Betelu taberna festak antolatzen hasi zen eta zeregin horretan jarraitu zuen bost urtetan. Taberna ondoko plaza txikian izaten ziren festa hauek, eta gutxi gorabehera 1975etik 1980-ra arte, auzoko jendea izan zen festa hauen arduradun. Bizilagunen arteko harremana estutzeko une aproposak izaten ziren hauek. Koadrilek festa

marmita o cazuela y las iban llenando con un cazo medidor de medio y cuarto litro. Mikeli recuerda que en aquel invierno de 1955 hizo mucho frío y hubo una helada que duró mucho tiempo y un día que iba a repartir leche con su hermana por Aldakonea se resbalaron y cayeron derramando toda la leche por el suelo. Más tarde pusieron una carbonería, dedicándose a la venta de carbón que traían en camiones desde Pasaia, lo descargaban en la carbonería, luego lo metían en sacos de 30 Kg. En aquellos tiempos este carbón se utilizaba en las cocinas de todas las casas y la chapa se mantenía encendida en invierno para que sirviera también como calefacción y al calentarse el depósito de agua que se encontraba en el fogón de la cocina había agua caliente en la fregadora. Posteriormente empezaron a vender barras de hielo por Egia, sobretodo en la época de verano. Lo llevaban en una camioneta, movían las barras con un gancho, utilizaban un hacha para trocear las barras y las mujeres se lo llevaban a sus casas y lo metían en un cubo para emplearlo como nevera, entonces no había frigoríficos. Mikeli y Pedro han tenido siete hijos.


Maritxu también se había casado, teniendo un hijo y una hija. Tras pasar una larga enfermedad del marido se quedó viuda. Tuvo que trabajar duro para poder sacar la familia adelante.

En aquellos años la chavalería jugaba en la calle, mientras los chicos jugaban al fútbol en el yerbal de Tolaregoia o se dedicaban a realizar verdaderas batallas contra los de Korea en el puente de Latxaga, las chicas con otro talante pasaban el rato saltando a la cuerda en la plazoleta del Baztan, al lado del bar Betelu. Cuando los chicos se ponían a jugar a fútbol en la plazoleta, las personas mayores, que se solían sentar en este lugar tenían que salir de allí para evitar los balonazos.



Hacia 1970 y durante unos cinco años el bar Betelu organizó unas fiestas que se celebraban en la última semana de setiembre, por San Miguel, que se desarrollaban en la plazoleta que estaba al lado del bar y a partir de 1975 hasta 1980 aproximadamente fue la gente del barrio la que asumió su organización

hautan jantzi zituzten estreinakoz "blusak". Gazteek lanik gogorrena egiten zuten, eta helduek, berriz, txosnan lan eginez laguntzen zuten. Txosna Easo Jantzigintzak utzitako lokalean jartzen zuten. Gainera, tortilla, txanpinoi eta piper berde pintxoak ere prestatzen zituzten, beste jaki batzuen artean, txosnan saltzeko. Bizilagunak berek hurbiltzen ziren txosnara, nahiz eguerdian, nahiz gauean, diru pixka bat xahutzera.



Festetan txosnan ateratzen zen irabazi gehien. Festetako egitarauan, berriz, herri-kirolek sekulako arrakasta izaten zuten, dela harri-jasotzea, dela sokatira... Auzoko gazteek parte hartu ohi zuten. Marmitako eta ajoarriero lehiaketa ere egiten zuten, eta ondoren, koadrilen artean saltzen zuten. Goizaldeko zazpietan, gaupasa egin eta etxera erretiratu gabekoak tartean zirela, bigantxetan ikuskizun paregabea izaten zen. Gaueko berbenak ere sona handia zuen eta inguruko jende asko hurbiltzen zen. Niko Etxarten taldeak jotzen zuen eta hauek arduratzen ziren kalea alaitzeaz. Herri-afaria ere egiten zuten auzotar guztiek eta hemen ere aitzakiarik gabeko lagunarte giroa sortzen zen. Haurrek ere bazuten beren lekua eta txokolate jatea antolatzen zen hauentzat. Soberan geratzen zena auzoko dendetan banatzen zuten. Donostiako Udaleko Tomas Alba zinegotzia hil zutenean festak bertan behera utzi zituztela ere gogoan du. 1980an festa hauek antolatzeari utzi zioten, diru eskasia zela medio. Arrano elkarteak hartu zuen lekukoa eta 1981ean Porrontxo jaiei eman zitzaizen hasiera. Baztango gazteriak lan asko egin zuen festa hauek antolatzen.

Gainerakoan, Alduntzin-Gastesi familia eredu da euskararen erabilerari dagokionez. Ahal duten neurrian beti eutsi eta lagundu diote euskarari, ez etxean bakarrik eginez, baizik eta edozein lekutara

y este hecho fue muy importante para la unión del vecindario. Fue en estas fiestas cuando comenzaron a usarse las primeras "blusas" de cuadrillas en Egia. Mientras la juventud realizaba el trabajo más fuerte, las personas mayores cooperaban también trabajando en la txozna - que estaba instalada en el local que les había dejado Confecciones Easo - o preparando tortillas y pinchos de champis, pimientos verdes, etc. en sus casas que los bajaban a la txozna para su venta. El propio vecindario acudía a la txozna a consumir, tanto al mediodía como a la noche.



La txozna era la principal fuente de financiación de las fiestas. Dentro de la programación de actos recuerdan el éxito que solían tener los Juegos rurales, con su levantamiento de piedra, la soka tira, etc. en la que participaban los jóvenes del barrio. Hacían concurso de marmitako o ajoarriero que luego lo vendían entre las cuadrillas. También se pasaban momentos emocionantes con las vaquillas a las siete de la mañana con los y las que habían hecho "gau pasa". A las verbenas de la noche – donde solía actuar habitualmente el grupo de Niko Etxart – solía acudir mucha gente de los alrededores, habiendo un ambiente extraordinario. Otro momento importante era el de la cena popular en la que se juntaba todo el vecindario creando un clima inmejorable. Se hacía chocolatada para los niños y niñas, con lo que sobraba se repartía por los comercios del barrio. También recuerdan que suspendieron los actos el día que le mataron al concejal Tomás Alba del Ayuntamiento donostiarra. Hacia 1980 dejaron de realizar las fiestas debido a dificultades económicas. La sociedad Arrano cogió el relevo y en 1981 se iniciaron los Porrontxos en las que participó muy activamente la juventud del Baztan.

Por lo demás la familia Alduntzin-Gastesi, entre otros aspectos, ha sido un ejemplo de cómo había que mantener y potenciar nuestro idioma el euskara,

joaten direla ere gure hizkuntzan mintzatuz. Maritxu bera auzoaren hobe beharrez ekintza askotan parte hartu duen emakumea izan da. Noiznahi ikusi dugu kalean edo udaletxean auzoaren alde borrokan. Azken urte hauetan, ordea, bere semearen egoerak du erabat kezkatuta, arazo politikoak direla medio, kartzelan baitago. Horregatik, oztopoak oztopo, bidaia luzeak egin behar izaten ditu bere semea ikusteko.

Horrelaxe bizi izan zituzten Baztanen lehenengo urteak, Maritxu eta Mikeliren prestutasunaren bidez jakin ahal izan dugunez.


2001.07.03

no solamente entre los de casa, sino en cualquier lugar donde ellos se hallaran.

Maritxu, por su parte, ha sido una mujer activa siempre dispuesta a participar en la mejora de nuestro barrio, un día en la calle y al siguiente protestando en el Ayuntamiento. En estos últimos años ha estado preocupada con la situación de su hijo José Mari que se encuentra preso por cuestiones políticas y entre otras inconveniencias, ha tenido que realizar largos viajes para visitarlo.

Así han sido los primeros años de la existencia del barrio de Baztan, según la información que se han prestado amablemente a facilitarnos Maritxu y Mikeli.

2001.07.03



**MARTZELINA OTEGI eta
MARIBEL MENDIZABAL alaba**

Martzelina Zaldibian jaio zen 1914an eta 18 urte zituela Donostiara etorri zen neskame. 1940an Patxi Mendizabalekin ezkondu zen eta Egian jarri ziren bizitzen, Eguzki Alden, Aldapa kalean. Seme bat eta bi alaba izan zituzten.

Maribel 1943an jaio zen. Auzoan bizi izan da beti eta beste inork baino hobeto ditu gogoan egiatarrak guztiak.

1940an Martzelina auzora etorri zenean, oso etxe gutxi zeuden eraikita, Egia eta Mandasko Dukearen pasealekuan bakarren batzuk, eta gainerakoan, Egiako gainean, Leon Enea eta Ramon Enea, eta askoz gehiago ez. Harrezkeroztik, ondorengo 70 urteetan erabat aldatu da Egia, bai itxuraz, eta bai bestela ere. 1950.eko hamarkadan, San Frantzisko Xabierko etxeak, Baztangoak eta Iruresoroak eraiki zituzten.

Hilario eta Martzelina Otegi anaia-arrebek Egia kaleko 16 zenbakian ikaztegia ireki zuten. Pasaiatik ekartzen zituzten ikatza eta ezpalak, eta bizilagunen artean ez ezik, Parte Zaharreko jatetxe eta elkarteetan eta hiriko beste zenbait tokitan ere saltzen zuten. Zaldi-gurdiz mugitzen ziren alde batetik bestera.

Urte batzuk geroago, hiri-gasa eta butano gasa sortu ziren eta honek sukaldeetan berebiziko aldaketa eragin zuen. Aurrerakuntza hauekin, ikaztegiek ez zuten inongo lekurik eta itxi egin behar izan zuten.

Bizimodua nolabait atera behar zela eta, Astinene baserriari zegozkion lurak hartu zituzten errentan. Loiolako zubiaren ondoan zegoen baserri hau eta lur haietan nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egiten zuten. Hainbat behi, txerri eta "juanito" asto sonatua zituzten. Azken honek laguntzen zieten zama-lanetan. Lan nahiko gogorra zen, atsedenk gabekoa, baina poztasunik ere ematen zuen. Baratzean bildutako produktuak egunero San Martin edo Bretxako plazara eramane behar izaten zituzten.

Baserritarren artean harreman ona zegoen. Baserriren batean txerriren bat akabatuz gero, bertako hurrek odolki muturren bat beste baserrietara eramateko ohitura zegoen, eta hauek oro har, eskupekoren bat jasotzen zuten ordainetan. Gabonetan, berriz, gazte taldeak baserritarrez jantzi eta baserrietara joaten ziren kantari. Baserritarrek intxaurrak, gartzainak eta diru apur bat ematen zieten. Euskal Herriko beste herrietan bezalaxe eusten zitzairen baserrietako usadioei.

**MARZELINA OTEGI y su hija
MARIBEL MENDIZABAL**

Marzelina nació en Zaldibia en el año 1914 y cuando tenía 18 años vino a trabajar de niñera para una familia donostiarra. En 1940 se casó con Patxi Mendizabal viniendo a vivir a Egia en Eguzki Alde, en la cuesta de Aldapa donde tuvieron un hijo y dos hijas.

Maribel nació en el año 1943, es del barrio de toda la vida y se acuerda de todos y todas las egiatarras mejor que nadie.

Cuando vino Marzelina al barrio en el año 1940, apenas había construidas unas pocas edificaciones en la calle Egia y Duque de Mandas, y por la parte del Alto de Egía, Leon Enea, Ramón Enea y poco más. Desde entonces, en los 70 años posteriores ha cambiado tanto la fisonomía de Egia, como en el resto de su existencia. En la década de los cincuenta se construyeron en esta zona las casas de San Francisco Javier, las de Baztan y las de Iruresoro.

Los hermanos Hilario y Marzelina Otegi, abrieron una carbonería en la calle Egia 16. El carbón -que traían de Pasaia- y astillas, aparte de venderlos en el vecindario lo llevaban a restaurantes y sociedades de la Parte Vieja y otros lugares de la ciudad, hasta donde se dirigían en un carro tirado por un caballo.

Años más tarde, tuvo lugar la aparición del gas ciudad y gas butano como energía doméstica, que trajo consigo la transformación de las cocinas y la inevitable desaparición de las carbonerías.

Entonces alquilaron unas tierras que pertenecían al caserío Astiñene, que está situado junto al puente de Loiola y se dedicaron a las labores de labranza y ganadería. Tenían varias vacas, cerdos, etc. y el famoso burro "Juanito", que les ayudaba en el transporte. Se trataba de un trabajo bastante duro y de dedicación permanente, pero al mismo tiempo reconfortante. Los productos que recogían en la huerta tenían que llevarlos diariamente a las plazas de San Martín o la Brecha.

El ambiente que existía entre los caseríos cercanos era muy agradable. Cuando se daba la matanza de un cerdo en un caserío, había la costumbre de llevar alguna morcilla a los otros caseríos, tarea que les correspondía a los niños o niñas, que solían ser correspondidos con alguna propina. En Navidades se formaban grupos de jóvenes que se dirigían a cantar a los caseríos vestidos de baserritarras donde les daban nueces, castañas, caramelos o algo de dinero. Se mantenían las costumbres de los caseríos como en los pueblos de Euskal Herria.



Gerraosteko garaietan, beren etxean ez zen janari faltarik izan, baina gogoan dute nola Patxi aitak zenbait jaki estraperloan ekartzen zituen. Batzuetan, arropa tartean gordeta ekartzen zituen indabak, besteetan, berriz, trenean etorri ohi zen jakiren batekin, baina orduan Txomin Enean jaitsi eta mendiz etortzen zen. Izan ere, Donostiako tren-geltokian Fielatotik pasatu beharra zegoen, eta bertan elikagaien garraioa kontrolatzen zuten. Beraz, kontsumo eskubidea kobratzen zuten, eta zenbaitetan, baita lapurtu ere.

Martzelina eta Maribelek ondo gogoan dute zenbat lan kendu zien garbigailuak. Lehen, bainuontzian sartu behar izaten zuten xaboitutako arropa ur berotan eta bertan utzi denbora batez. Eskuz ondo igurtzi, uretan eragin eta lehortu. Hortaz, orduak eta orduak ematen ziren eginbehar honetan. Dena den, garbigailua etxera iritsi aurretik, Bilboko senitarteko batek turbina batekin garbigailuaren aurrekaria izango zen tresna bat asmatu zuen eta honek ere lana galanki erraztu zien.

Martzelinak familiarekin merenderoren batean igarotako egunak ekarri ditu gogora. Mantelarekin alde banatan lau korapilo eginda eraman ohi zuten kazola bil-bil eginda. Gazteak jaiegunetan Martuteneko Campos Eliseosera joaten ziren dantza egitera. Bidean, merenderoren batean geratzen ziren, batzuetan Faustino sagardotegian, besteetan, Martuteneko Rosario, etab. Dantzan ordu batzuk eman eta berriz bueltatzen ziren oinez. Hori zen kirola egitea, hori! Gainera, etxera afari legerako garaiz etorri behar izaten zen, ez orain bezala.

Maribelek bere lehengusu-lehengusinekin kalean jolasean igarotako momentu atseginak ez ditu ahaztu. Han izaten ziren Otegi, Mendizabal eta Eldua; Labaiendarrak, Fernandez, Eguzki Aldeko denak; Umezurtza etxeokak ziren Aranburu, Picamils eta Mateo; Tolaregoi baserriko Iturtzaeta, etab.

En aquellos tiempos de la posguerra en su casa no habían pasado escasez de alimentación, pero si recuerdan como Patxi el padre, en ocasiones había traído alimentos de estraperlo para consumo familiar. Unas veces eran alubias escondidas entre la ropa y en otras ocasiones que venía en tren con algún alimento, tenía que bajarse en Txomin Enea y venir por el monte, porque en la estación de Donostia tenían que pasar por el Fielato, puestos que había en las entradas de las poblaciones para controlar el transporte de alimentos y cobrar el derecho de consumo, que a veces incluso era requisado.

Marzelina y Maribel recuerdan el alivio que fue para ellas la llegada de la lavadora. Antes había que meter toda la ropa en la bañera con agua caliente enjabonada y dejarla a remojo durante un tiempo, luego frotarla a mano consistentemente, aclarar y secarla. Había que pasar horas en esta labor. Poco antes de la lavadora un familiar de Bilbo inventó un aparato con una turbina que utilizaron en casa y les facilitó enormemente el lavado, siendo el precedente de la magnífica máquina que fue la lavadora.

De los momentos de ocio Marzelina se acuerda de las veces que iba la familia a algún merendero con la cazuela que llevaban metida dentro de algún mantel con cuatro nudos en los costados. La juventud los días festivos solía ir andando al baile de los Campos Eliseos en Martutene, paraban en algún merendero de los muchos que había en el camino, algunas veces en la sidrería Faustino, otras en Rosario de Martutene, etc., pasaban unas horas bailando para luego volver también andando. ¡Eso si que era hacer ejercicio! Y había que volver a casa puntualmente para la hora de la cena, no como ahora.

Maribel tiene un grato recuerdo de los momentos en que jugaba en la calle con sus primos y primas: Otegi, Mendizabal y Eldua; los Labaien, Fernandez, todos de Eguzki Alde; los de casa Umezurtza:



Ezkutaketan, kartetan edo tebeoak aldatzen ibiltzen ziren. Batzuk txoriak harrapatzera joaten ziren, eta hauek erakartzeko likarekin, biskosarekin alegia, igurzten zituzten zuhaitz enborrak, txoriak bertan itsatsita gera zitezten. Ondoren, harrapatu eta kioletan sartzen zituzten. Irudimen handikoak ginen eta edozein adar edo elementu pixka bat aldatuz, ezpata edo jostailu bihurtzen genuen. Guztiok miresten genuen bizikleta edo patinen jabe zena. Madalenetako jaiak ere gogoan ditu – Tejerian kukaña jartzen zenekoa –. Egunen batean bere lehengusu Peio Elduak irabazi zuen jolas hau. Udan ospatzen ziren gertuko auzo eta herrietako festak ere ederrak izaten ziren eta primeran pasatzen omen zuten.

Maribelek ezkondu eta hiru seme eta alaba bat izan zituen. Auzoan sortu berri zuten ikastolara eramatean, ikastola honen lehenengo urteetako zailtasunak gertutik bizitzea suertatu zitzaizen. Eginahalak egin ziren eskolaurreak jarraipena Egian bertan izan zezan. Helduek euskara ikasteko antolatu zen Gau Eskolan ere esku hartu zuten.

Ordubete eman dugu berriketan, euskaraz hitz eginez, etxean ere hala egiten baitute oro har. Arratsaldeko bostak dira, eta Martzelina, laurogeita zazpi urteko emakumea, eguneroko legez, kalera doa bere lagunekin paseatzera.

Egiako xehetasun eta lagun –Artola, Urdanpileta, Eldua, Lazkano, Cocolina, etab.– edo baserri – Txibili, Tturko, Tolaregoia, Astinene, Etxetxo, esaterako–

ugari ekarri dituzte gogora nire lagun Maribel eta Martzelina amak, Egia auzoaren berri beste inork baino hobeto duten bi emakumeok.

23.7.2001

Aranburu, Picamils, Mateo; Iturzaeta del caserío Tolaregoi, etc. -juntos al escondite, a cartas o cuando se cambiaban tebeos. Algunos solían ir a atrapar pájaros "al reclamo", que consistía en poner liga, sustancia viscosa que se untaba en los árboles para que se quedaran pegados, luego los cogían y los metían en jaulas. Había mucha imaginación para jugar, cualquier rama u otro elemento transformado manualmente se convertía en una espada o cualquier otro juguete. La que tenía una bicicleta o unos patines era la envidia de los demás. También recuerda con gozo los tiempos de las fiestas de Magdalenas, - cuando se ponía la kukaña en Tejería, que en alguna ocasión había ganado su primo Peio Eldua - o las de los barrios y pueblos cercanos que se celebraban durante el verano.

Maribel se casó teniendo tres hijos y una hija. Al llevarlos a la ikastola que habían abierto recientemente en el barrio, les tocó vivir muy de cerca las dificultades de este centro escolar, así como en los esfuerzos que se realizaron para que el parvulario tuviera continuidad en el mismo Egia. También participaron muy activamente en el aprendizaje de adultos del euskera, en la Gau-eskola.

Hemos pasado una hora haciendo la entrevista, hablando en euskera, que es el idioma que utilizan normalmente en casa. Son las cinco de la tarde y Marzelina sale a pasear con sus amigas como todos los días con sus ochenta y siete años.

Y son innumerables los detalles y las personas de Egia – Artola, Urdanpileta, Eldua, Lazkano, Cocolina, etc. – o los caseríos – Txibili, Tturko, Tolaregoia, Astiñene, Etxetxo, etc. - que recuerdan en esta hora de conversación mi amiga Maribel y su madre Marzelina, dos mujeres que han conocido el barrio como la palma de su mano.

23.7.2001

EGIA, ETORKIZUNARI BEGIRA

Gure auzoa ia erabat XX. mendean eraiki bazen ere, XXI. mendeko lehenengo urte hauetan ere aldaketa garrantzitsuak gertatuko direla dirudi:

- Epaitegi berriaren eraikina Atotxan.



- Lehen futbol zelaia, pilotalekua eta fruten merkatua zeuden tokian eraikitzen ari diren 388 etxebizitzak.

- Udal Musika eta Dantza Eskola (Atotxa gunean) eta Nazioarteko Kultura Zentroa (egun Tabakalera dagoen lekuan).



Eraikin hauek inguru honetako bizimoduari guztiz eragingo diote. Epaitegian langile askok egingo du lan, merkataritzari dagokionez, aldaketa nabaria izango du, batez ere ostalaritzak. Bestalde, etxebizitza berriek jende gazte ugari erakarriko dute. Epaitegiak, Musika Eskolak eta Kultur Zentroak kanpoko bisitari ugari ekarriko dute, hein handi batean.

Laugarren zubiak eta etorkizuneko saihebidetarako trafikoa eragingo du.

EGIA, MIRANDO AL FUTURO

Si nuestro barrio se ha edificado casi en su totalidad durante el siglo XX, parece que los primeros años de este siglo XXI también van a haber transformaciones importantes:

- El edificio del nuevo Juzgado en Atotxa.
 - Las 388 nuevas viviendas que se están construyendo en la zona que estaba ubicado el campo de fútbol el frontón y el mercado de frutas.



- La Escuela Municipal de Música y Danza (en esta zona de Atotxa) y el Centro Internacional de Cultura Contemporánea (en el edificio de la actual Tabacalera).

Estas edificaciones alterarán sustancialmente la vida de esta zona. Por un lado el aumento de trabajadores en el Juzgado, alterará el comercio, principalmente hostelero. Las nuevas viviendas traerán mucha gente joven. El Juzgado, el Centro de Música y el Centro Cultural traerán mucho visitante de fuera de la zona. El cuarto puente y la variante proyectada, alterará considerablemente el flujo de tráfico.

Hay en perspectiva un Concurso Internacional de proyectos para modificar el Parque de Gladys, con la rehabilitación del viejo Palacio, etc.



Las piscinas que están proyectadas en Zuhaizti,

Gladys Parkea aldatzeko Nazioarteko Lehiaketa bat egiteko asmoa ere badago, eta, besteak beste, bertako Jauregi zaharra zaharberritu nahi da.

Zuhaiztin eraikiko diren igerilekuek auzoaren beharretako bat aseko dute eta igeri egitea gustuko dutenek izango dute nora jo.

Kultur Etxeak, dirudienez, Zai-Zoi Koordinadoraren zerbitzuak alde batera uzteko asmoa du eta honek koordinadorari lotzen zaizkion auzoko kultur elkarte gehienekin harremanak haustea ekarriko luke.

Etengabeko etxebizitzaren garestitzearen eraginez, berriz, auzoko gazteek hiritik urrunago dauden inguruetara joan beharko dute bizitzera, etxebizitza merkeagoak dauden lekuetara alegia.

Geure hizkuntza gehiago erabiliko da Egian, izan ere, gaztetxoek hezkuntzaren bidez ere jasotzen dute euskara.

Egiako bizilagunek auzoko kultur elkarrekin antolatutako hainbat kultur, gizarte eta kirol ekintzetan parte hartzen jarraituko dute.

Laburbilduz, egitarrek bilerak egiten jarraituko dute, erakundeei beren auzorako zerbitzu egokiak aldarrikatzeko.

Auzoan geratzen diren baserri bakanei eustea espero dugu. Egiaren sorreran (duela mende eta erdi) baserriak besterik ez zirela esan dugu hasieran eta ez genuke nahi inolaz ere urte gutxiren buruan Egian baserriak desagertu egin direla esaterik.

cubrirán una necesidad del barrio y facilitará a los aficionados la práctica de la natación.

El Kulturetxe, si como parece, se decanta por prescindir de los servicios de la Coordinadora Zai-Zoi, se alejará de la mayoría de las asociaciones culturales del barrio, que aglutinan a esta Coordinadora.

La carestía incesante de la vivienda, traerá consigo, que los jóvenes del barrio tengan que desplazarse a otras zonas más alejadas de la capital, donde haya viviendas a precios más asequibles.

El uso de nuestro idioma será mucho más generalizado en Egia, teniendo en cuenta que los jóvenes aprenden el euskera en la enseñanza.

Los vecinos y vecinas seguirán participando en los actos culturales, sociales, deportivos, etc. que organizan las variadas asociaciones culturales del barrio.

En fin, los egiatarras se seguirán reuniendo para reivindicar a las instituciones unos servicios adecuados para el barrio.

Esperemos que no vayan desapareciendo los últimos caseríos del barrio. Y si iniciábamos la historia diciendo que en un principio (hace siglo y medio), solamente había caseríos en esta zona, ojalá que no haya que decir dentro de unos pocos años que se ha cerrado el ciclo de la existencia del caserío en Egia.

Informazio iturriak

Pare bat urtetan idatzitako liburu hau egiteko bertako hainbat elkarteren aldizkari eta argitarapenez baliatu naiz.

Argazki gehienak Zai-Zoi Koordinadoraren, auzotarren eta inguruko aldizkarien bidez lortu ditugu. Hauek dira horietako batzuk:

- Ur-Zaleak-en 50. Urteurrena (1935-1985).
- Aitor Ikastolaren 25. Urteurrena (1967-1992).
- Porrontxo Jaiak (1982-1992).
- Antxetaren 15. Urteurrena (1982-1997).
- Zeruko Argia, 833. zenbakia.
- Irutxulo, 1999.eko urtekaria, 27 eta 65 zenbakiak.
- Egia bizirik (1999.7), "Egiako Koordinakundea".
- Zai-Zoiren Egiako Baliabide Gida.
- Irudiz hornitutako Euskal Herriko Entziklopedia Orokorra, Auñamendi.
- 1996ko Udal errolda.
- Internet.


Fuentes consultadas

Este libro escrito durante un par de años, lo he realizado valiéndome de diversas revistas y publicaciones editadas por distintos organismos vecinales.

La mayoría de las fotografías se han conseguido por medio de la Coordinadora Zai-Zoi, de personas del barrio, de las revistas vecinales, etc. Entre las que están:

- Cincuentenario de Ur-Zaleak (1935-1985).
- 25 Urteurrena, de Aitor Ikastola (1967-1992).
- Porrontxo Jaiak (1982-1992).
- 15 Urteurrena, de Antxeta (1982-1997).
- Zeruko Argia, 833 zenbakia.
- Irutxulo, 1999.eko Urtekaria, nº 27, nº 65.
- Egia bizirik (1999.7), "Egiako Koordinakundea"
- Egiako Baliabide Gida, de Zai-Zoi.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, de Auñamendi.
- Padrón de 1996 del Ayuntamiento.
- Internet.

Liburu hau 2002ko
ekainaren 13an
atera zen moldiztegitik.
Este libro se terminó
de imprimir
el 13 de junio de 2002



Liburu honetako azkeneko datuak 2001eko bukaeran egokitzen dira.
Los últimos datos de este libro corresponden a finales de 2001.